

Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA.11. ZENBAKIA. EKAINA. 1994

11

FINISTERRETIK SARAJEVORA POESIAN ZEHAR

1 Euskal Herriko
I Poesia eguna

Okzitaniar **2**
Poesia

3 Asturiar
Poesia berria



COMMISSION OF THE EUROPEAN COMMUNITIES



KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Hegats 11

LITERATUR ALDIZKARIA

Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA. 11. ZENBAKIA. EKAINA 1994

11

A U R K I B I D E A

FINISTERRETIK SARAJEVORA POESIAN ZEHAR

EUSKAL HERRIKO I POESIA EGUNA

Henriette Aire	10	Imanol Irigoien	32
Xabier Aldai	10	Joan Mari Irigoien	33
Iñigo Aranbarri	11	Amaia Iturbide	34
Jon Arano	12	Felipe Juaristi	35
Aurelia Arkotxa	13	Gabriel Korta	36
Rikardo Arregi Diaz de Heredia	14	Mañex Lanatua	37
Garikoitz Berasaluze	15	Karlos Linazasoro	38
Xose Maria Alvarez Cáccamo	16	Gerardo Markuleta	39
Itxaro Borda	18	Luis Mari Muika	40
Jon Casenave	19	Inazio Mujika Iraola	42
Harkaitz Cano	20	Omar Navarro	43
Patxi Ezkiaga	22	Joan Navarro	44
Eluzka Fernandez	23	Juanjo Olasagarre	46
Miguel Anxo Fernan-Vello	24	Jose Luis Otamendi	48
Bitoriano Gandiaga	26	Berta Piñán	49
Xabier Ganzarain	27	Jasna Samic	50
Joxerra Garzia	28	Jose Maria Satrustegi	52
Mikel Hernandez Abaitua	29	Asier Serrano	53
Lierni Ibargutxi	30	Andoni Tolosa	54
Juan Kruz Igerabide	31	Angel Zelaieta	55

OKZITANIAR POESIA

Aitzin solasa. Alain Viaut	57	Alan Roch	82
Renat Nelli	61	Joan Larzac	86
Miquel Decor	74	Marcéla Delpastre	94
Ives Roqueta	78		

ASTURIAR POESIA BERRIA

Bi hitz sarrera gisa. G. Markuleta	97	Berta Piñán	114
Antonio Garcia	99	Xuan Bello	120
Xuan Martin	106	Pablo Antón Marin Estrada	126

Hegats
Literatur aldizkaria
11. zenb. 1994

ARGITARATZAILEA:
EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

LEHENDAKARIA:
JOXERRA GARZIA GARMENDIA
ALE HONETAKO KOORDINATZAILEAK:
MAITE GONZALEZ ESNAL / JUAN LUIS ZABALA
BATZORDE ZUZENDARITZA:
ARANTXA ITURBE, EDORTA JIMENEZ, DANIEL LANDART,
GERARDO MARKULETA, INAZIO MUJICA IRAOLA, JOSE LUIS OTAMENDI,
JUAN LUIS ZABALA.

KOLABORATZAILEAK:
ALAIN VIAUT, MAISON DE SCIENCES DE L'HOMME
INSTITUT D'ETUDIS OCCITANS.

MAKETAGILEA:
Lamia
Curia, 25-5º
31001 Iruñea

Euskal Idazleen Elkarte
Etxague Jeneralaren kalea, 6-behea-eskubia
20003 DONOSTIA
Tf.: (943) 420010
Fax: (943) 429223
ISSN: 1130-2445
L.G.: SS- 359/90

FINISTERRETIK SARAJEVORA

POESIAN ZEHAR

Euskal Herriko I Poesia Eguna

AITZIN SOLASA

Euskal Idazleen Elkartek antolaturik, 1993ko urriaren 9an, Donostiako Trinitate enparantzan egin zen Euskal Herriko I Poesia Egunean irakurri ziren poemak dituzu ondorengo hauek, irakurle. Ez daude guztiak, egia esan, poeta bakoitzak bere bina lan irakurri baitzituen, eta hemen bana baino ez baitugu bildu; baina bai gutxien-gutxienik Trinitate enparantzako taula gainetik zabaldu ziren poemen nondik-norakoa ezagutzeko lain.

Euskal Herrikoez gain, kanpoko poetarik ere izan genuen poesiaren festa handi hartan: Xose María Álvarez Cáccamo eta Miguel Anxo Fernán-Vello poeta galegoak, Berta Piñán poeta asturiarra eta Jasna Samic poeta bosniarra; bertaratu ez arren, Joan Navarro poeta katalanak ere parte hartu zuen, bere poema bat igorritz.

Ez zen poesia soilez osatu, dena den, arratsaldeko 18.00etan hasi eta gaueko 22.00ak arte iraun zuen festa luze eta oparoa. Yolanda Arrieta idazleak zuzendutako Dzanga antzetzaldearen emanaldi bat ere izan zen; Mixel Arotze, Jean Mixel Bedaxagar eta Pepele Mirande kantari zuberotarren kanturik ere entzun zen; eta Pello Serbielle kantariak eta Ganbara taldeak euren musika eskaini zioten poesiaren inguruko ikuskari ezohizkoak bildu zuen ikus-entzulego zabal eta bariatuari.

Hemen dituzuen 40 poemak 1993ko urriaren 9ko alcarekin batera kaleratutako zortzi orriko gehigarri berezi batean bildu zituen *Euskaldunon Egunkaria*-k. Egun hartarako gida gisa argitaratu zena une hartako euskal poesiaren *Polaroid* argazki moduko bat ere bazela esan zuen norbaitek. Delako *Polaroid* hori eskaintzen dizuegu *Hegats* aldizkariaren 11. zenbaki honen lehendabiziko atal honetan, *Euskaldunon Egunkaria*-ren gehigarri hura eskuratu ez zutenak –edota eskuratu ondoren galdu zutenak– gogoan.

Ororen buru, atari gisa, Gabriel Arestiren poema bat ageri zen gehigarri hartan, eta ez genuke *Hegats* honetan hura ahazterik nahi:

*Esanen dute
hau
poesia
eztela,
baina nik
esanen diet
poesia
mailu bat
dela.*

Henriette AIRE
Xabier ALDAI
Iñigo
ARANBARRI

UHAIN BAT BADOA

ILUNABARRAK
Iguzki gorritsuaren suaz
Itsasoari
Urratu ildoan
Uhain bat badoa
Musu txalogarriez
Papo hanturik
Pikondoen atzeko harkaitzean
Egonezinaz lehertzen denean,
Diamantezko azau miresgarrian
Bil itzazu
Perla bakoitzean

HENRIETTE AIRE

LEHENIK lainotasunean jantzita ageri zinen burua garbi lehenik
umeak gisa jolasten genuen maite ume gisa ume biluzi
ondoren kolore biziz edertu zinen zeure buruaitsu ondoren
erdeinatu zintudan jabetu gabe mirestu kontuak eskatu gabe
eta guztiak itxi behar dutelako eta inork ez irten
salgai ote zauden galdetzen diot ene buruari orain
lehen ez bezala biluzten hasi zara orain berandu delako
irudiak bere kabuz desegin baino lehen
ez bezalako lainotasunean ageri zara orain mailu ageri ere
iraganeko lotsaren estalkiaz izkutatu zara behinolako poesia
ume garelako julistu duzu guban zure altare begi-tarteko iltze
salgai ote zauden galdetzen diot ene buruari

XABIER ALDAI

LEHENGO ez bestelako itsaso batean eman dugu hondoa
Portuetan dakizkigun bandera ederrenez agurtu gaituzten untziok
Gasoil barik, ur bidoi barik, tripulazino barik
Gure elkartasuna metalezko nondik bat da
Norarik garbieneko, nora-ertzik ikusgarrienaren begi-bistan
Eta dardar egiten du olatu orain biziagoen sehaskan

Lorik ez hartzeko diote lehorretik, adore izateko
Lehenbiziko amodio haiek bezalaxe maite gaituztela
Eta lainoa altzatu orduko eramango gaituela haizeak hondarretara
Eta eurekin batera izango garela geu ere libre

Baina niri min kristal ehoak gure begietan
Han izan barik naiz han
Badakit zer den zubi bat lehertu aurreko isiltasuna
Mortero baten esperantza izen gaitzeko menditik
Goizalbarekin beti ezezagun bereei ematea lur heze

Han naiz han izan barik
Iletargi berriak ostentzen du gure nahiaren geldia
Ezinez gara garena, han barik gure oinpe kulunkatuan
Sustarrik bako alga azulak dakartza guregana mariak
Zuen hondarrak hondarregi dira gure untzientzat

IÑIGO ARANBARRI

Jon ARANO

**Aurelia
ARKOTXA**

NI EZ NAIZ "AMEN"GOA

BADA gauza bat oso handia dena
Oso-oso handi-handia,
Zerua deritza eta
Ez da denon eskura.
Zeru raso nahi dugu eta
Ez zeru galoiduna.

Ez nauzue zerutarra
"Horrezpaleo"koa nauzue
eta telefonoa hoska denean
Ez du niretzat jotzen.

Tabernariek atera dute
Berriz jornadako jornala:
Iada atzoko periodikurik
Bazenik ere ez dakite.

Nire firma da Xegundo
Eta primua ez baino
Nauzue Xegundoi;
Bizi naiz, baina doi-doi,
Erregutu errukarri honengati otoi!

Ez gara militarrek
Baizik eta zibil-txarrak
Ajuriaeneako apotzarrak
Lotutako morroiak.
Biba jopu zoriontsuak!

Espainola ere gustorago
Nintzateke lehenago,
Ezen ez euskal-lerdo
Santuen Herrisantuko lelo
Gernuzale lerdetsuon meneko.

Pesimistak pentsatua egia izan:
Dantzatutakoa ere kenduko digute,
Iragana bera ezabatuko.

Goizik gabeko eresia:
Herriko festak direla?
Kaleen alderik alde
Dagi armiarmak hesia!

Ez nauzue zerutarra.
Ni enaiz amengoa.
Horrezpaleokoa nauzue.

Euskalduna naiz eta ez nago harro.

JON ARANO

PLANETA BLUIEKO GIZONARI

Ce qui m'intéresse, c'est les cendres.

Y. KLEIN

HARTU zinuen pintzel bat, tinda bluiean trenpatu eta kolore dirdiratsuarekin hasi zinizkion emazteari izterrak tindatzen, sexoa, sabela, bularrak. Zure marka osoki eman arte. Inprimatu zen haren gorputz bluia mihisean. Haragi tindatua ongi zapatu zen tokietan, larruaren zimurak pakidermo batenak bezala agertu ziren izara garbian geografi fantastiko bat sortuz. Bluibluia.

Eta ni, zure bluian sartu nintzan aspaldidanik igurikatzen nuen kontinente ezezagun ezagun batean bezala.

Kolore arraro hori jastatua nuen jadanik Giottoren zeruetan, Kandinskyren zaldizko bluiean, tatamietan, erreka bazterretako zenbait orhoit-lilietan. Bainan zurekin bluiak kuadroitik ihes egin nahi zuen, mugak puskatu.

Haur sortu berri sartu nintzan zure itsasoan.

Belogi blui harekin, itsas-zolan ebatsi izaki borobil bitxi harekin, pintatu nuen ene gorputza. Idetsi nuen kolore bluia zainetan ixuri zitzaitan. Sumatzen nuen edari lodia zariola ene barnean. Itsas-zerumugan edan zintudan.

Zure begi beltzak bluitasunak ito. Uhain ikaragarriak zure bihotza zartarazi. Bihotza belogitu. Hogeitamalau urte lur huntan.

Bluibluitua atxeman omen zautzuten. Klein.

AURELIA ARKOTXA

**Rikardo ARREGI
DIAZ de HEREDIA**

**Garikoitz
BERASALUZE**

ABESTIEN LILURA I

KANTAIDAZUE Schuberten lieder bat,
lieder triste bat,
Negu-bidaia edo *Ezki-lorea*
baso ilunez beterik
erreka gardenez hanturik
amodio ezinez gainezka.

Jo ezazue leun pianoa
eta kantaidazue liederrik tristeena.
Egiazue lekua su bazterrean
Franz gaixoari.

Eta Herz hitza kantatzea suertatzen bada
emaiazue behar duen doinu eta keinua,
mila zortzirehun eta hamabigarren urteko
erromatikoak baikinan
eta gutarik batek
sendaezinezko gaitz lotsagarria bailuen,
inork ez baitu inoiz gailenduko
gure ausartzia eta edertasuna

RIKARDO ARREGI DIAZ DE HEREDIA

ASFALTOZKO begiradetan oihertuak
usoen suizidio itxurazki goibela
dastatu dinате dezibelio izkutuen leihoek
semaforo nekropoliaren hormetan
kondenaturiko ketan ero,
hiriaren karminezko biriketan.

Berandu zetorren igandea
ikatzeko autobidearen urruneratik,
galdua din autobusa nonbait...
zigarrokinen asperdura kadukatuaren horizontean.

Egunsenti birrindua eta
pasioaren hegapeko oroitarriak
gosaldu dizkin bakardadeak
dekadentziak suntsituriko katilu hiletan.

GARIKOITZ BERAALUZE

**Xose María
ALVAREZ
CÁCCAMO**

ETXEAN sartu nintzen berriro. Zu joana zinen
zeure lekua hartzeko herrixka gardenean.
Kezko gorputz batek dirau bulegoan, zutunik.
Pertsianak ez dira isten. Arrakalak jaiotzen dira
eta haietan zehar usoak hegaldatzen kolpeak hartuz.
Egurak dilatatu egiten dira, kraterrak zabaltzen dituzte, puztu egiten dira
gauez sartu zen itsasoak azpiratuak. Eskoratu egiten da
etxea ur fosilezko zama garraiatuz.
Amak apar porotsuetako zurrumurrua ehuntzen du
lainoetan ainguratuta,
zu iheslari sentitzen ikasten, urrutitik.

Batzuetan alfonbra orain okertuetan ibiltzen da
eta alderdi bertikalak ukituz babesa bilatu beharra izaten du,
eskuko hatzetan zu ez zaudenetik geranioetatik datozen
zenbait inurriren lan geldiezina entzuten
eta hara eta hona dabil korridorean zehar barruan hiribidea balego bezala,
eta telefonoz mintzatzen da okerreko zenbakiakin enigmak uzteko
hau bezala beharbada erbeste girokoak diren beste etxe batzuetan,
edo gu berreskuratzeke ene izena oihukatzen du leihoetatik
eta arratsaldea motorretatik libre geratzen da.

Sosegatu egiten da berriro.
Itsaso bareko senadietan untzi lokartua,
etxea pairuan dago.
Zu berriro ere geratu edo itzuli egiten zara
gelditasunaren giltzak baieztatzeko
eta gorputzek bere zama zentrala berreskuratzen dute.

Gailegoz idatzia; itzul.: Xose María Alvarez Cáccamo eta Juan Luis Zabala.

VOLTEI a entrar na casa. Ti marcharas
a ocupar o teu sítio na aldea transparente.
No despacho pervive un corpo en pé, de fume.
As persianas non fechan. Nacen fendas
através das que voan, golpeando-se, pombas.
As madeiras dilatan, abren cráteres, hinchán
sumidas polo mar que entrou de noite. Escora
a casa transportando un peso de água fósil.
Mamá tece un rumor de porosas escumas
ancorada na brétama,
aprendendo a sentir-te fuxitivo, de lonxe.

As veces camiña polas alfombras agora oblícuas
e ten necesidade de amparar-se tocando as partes verticais,
escoitando nos dedos o traballo inquieto de algunhas formigas
que veñen dos xeránios desde que non estás,
e vai e ven polo corredor como se houbese dentro unha avenida,
e fala por teléfono con números errados para deixar enigmas
en outras casas talvez de exilio como esta,
ou para recuperar-nos chama desde as xanelas o meu nome
e fica a tarde libre de motores.

Logo volta a acougar. A casa paira,
dormido buque en abras de mar calmo.
Ti outra vez permaneces ou regresas
para afirmar as chaves da quietude
e recobran os corpos o seu peso central.

XOSE MARÍA ÁLVAREZ CÁCCAMO

Itxaro BORDA
Jon CASENAVE

LO GABEAN ORAINDIK...

LO gabea nagon oraindik, eguna gris altxatzen
den goiz huts honetan,
txori ausartak hegaldaka xotilaz
hegatz hegia laztandu din,
hire ezpaineak nere sorbalda bezala, eztiro.

aditzak, asteburuak bezain trinko dabiltzalarik,
–ba dea denborarik guretako?–
hitzak, paperean nagi, lerratzen zaizkidan
gau-mineko xenderetan iheslari,
hire ezpainak nere sorbaldan bezala, eztiro...

lo gabea nagon oraindik, eta goiz gris honetan,
euria egin dezakeelarik,
uhar desiratuek, arto elge idorrak bustitzen
dituztela itxuratzen dinat,
hire ezpaineak nere sorbalda bezala, eztiro...

ITXARO BORDA

BASATI OHIAREN KOPLAK

Hiri beltz hunek itotzen dauku
Geure baitako bihotza
Bizitegira itzultzerakoan
Denetan dakusat beltza
Bostgarrenera heldu artean
Osoki nago arrotza
Ene umea begiak hutsik
Tristeki ohean datza
Zertan giren gu konturatzean
Ba daukat marruma latza
Gure odoleko basatiek
Mendian dute egoitza.

Goizean goizik joan gintazke
Arma-nabalen ekarle
Mendiko argi eskas eztiak
Hor inguruan babesle
Ihizi arrastoen ondotik
Oso zehazki ikerle
Eguneko ogiaren truke
Aber bizi ebasle
Basurde hagin, azeri larru
Diru guttitan saltzaile
Leize iluneko hartz handiaren
Aztaparretan garaile.

Lehen ez geunden hiri barnean
Erdi itzalik arima
Zelai idokien zabalean
Alde ginuen haizea
Aurrean bideko hauts lodian
Zoan artalde nasaia
Aratsari buruz sutondoan
Hari beretik ipuina
Goiko izarren argi-iturrian
Zegoen etorkizuna
Haize hotzaren fereka pean
Ginar-muina da gizona.

JON CASENAVE

Harkaitz CANO

ZU JAIO ZINEN UDAZKENA

zu jaio zinen udazkenean ere
gurmak inausi zituen desioaren hondarrak
hostoek izenik gabe jarraitzen zioten heriotzari
eta jainkoak udazkenero bezala
bildu ziren munduratu beharrekoen zerrenda
osatzeko
beren kaierak eta lapitzak eskuratuz
eseri ziren iturritz betetako parke hartan
euria ari zuen deblauki eta
obispoen sotana luzeak urratu behar izan zituzten
aterki gehiago egiteko
eta eztabaida luzeen ondoren zuri kaio jaiotzea
egokitu zitzaizun kaio jaio bataio
baina udazken hura oso euritsua izan zen
eta jainkoren bati eztarria erlastu zitzaion
ortozik ibiltzeagatik istilen gainean
kaio jaiotzea egokitu zitzaizun baina
euri jasa izugarria izan zen urte hartan
pupitreetako urjauziek
jainkoen kaieran tinta gorritz apuntatu zerrendak
ezabatu zituzten
honat zentozela hegoak asko busti zitzaizkizun
mela mela zeuden hiri guztietako teilatuak eta
blai blai bai zure ezpainak gorritu zitzaizkizun
hotzaz
bi bular ematu ziren zure hegapeetan
kabi obala gorpuztu zitzaizun sexua ehuntzera
zu jaio zinen udazkenean
irratietan etxetik ez ateratzea
gomendatzen zuten gizon bibotedunek
postaletako katedralak belztu egin ziren
hau euritea hau euritea hau

bukatuko al da balinbatte balinbatte
baina euria bota eta bota baziren mila tristura mota
eta inor konturatu ez zen arren
zure hegoak bi besotan bilakatu ziren
zu jaio zinen udazkenean jendeak leiho ondoan
egiten zuen lo eta atertuko al du atertuko al du
balinbatte atertuko al du balinbatte
errepikatzen zuen putzuak handituala begiak leher
kaio jaio behar zenuen baina
emakume bihurtu zinen halabeharrez
udazken hartan euri gehiegi egin zuelako
ibai guztiek gainezka egin zutelako
kaio jaio behar zenuen baina
emakume jaio zinen balinbatte balinbatte
eta geroztik biluztasuna zure mingainetan bizi da
balinbatte uholdearen kurbetako bustiduretan
eta zure begiek oraindik ixilpean gordetzen dituzte
jaio zinen udazken hartan isuri ez zenituen malkoak

HARKAITZ CANO

Patxi EZKIAGA
Eluzka
FERNANDEZ

EGUNSENTIKO txalupa bailitzan
abiatzen da goizero belea
eguzkira.

Urrekara itsasoa eta dirdiraka
uhain bakoitzaren txalupa
beltza.

Kolorearen kapitaina banintz
edo prismaren aingura
muturrak lotuko nituzke

eta uztargi berean jarri
betirako
Armageddon eta Josafat harana.

PATXI EZKIAGA

EURIAREN magiak
beregianatu nau leihotik at
eta zure begiak jeloskor
intzirika ari zaizkit
bere gozamenerako
arratsaldearen malkoak
bahitu nahiz
seguraski.

Euriaren magiak
irentsi du ere nere bihotza
eta zure oroipena zalapartari
oihuka hasi da
gauaren magalean bizitzen duen
irudimenaren mirarira
itzuliarazi nahiz
seguraski.

Euriaren magiak
antzeman dio
irrikiari ezizena.
Bere txinpartak gaua ere
akabatzeko gai dira
ametsekin maitemintzen
direnean.

ELUZKA FERNANDEZ

Miguel Anxo
FERNAN-VELLO

BIDAIA

Jordi Virallongari

URRUNTASUNAREN lorea niregana urdin etor dadila dut desio
poema honetan, aldegin eta itsasoa uzten dudana une honetan
lur ilun batek tristuraren bide zaharra
kausitzen duenean nire odolean.

Hegora noa. Beste egun batzuetako norabide leuna bilatzen dut,
beste gorputz batzuen argi zuria.
Garai honetako errautsa eta miseria utzi egiten ditut
hiri arrotz bateko gizon eta emakumeei loturik
bere kaleak lur jota zeharkatzen dituen haizeak bezala.
Barbaro artean naiz bizi eta ortzemuga oro atsegingarri da.
Horregatik diot agur azken zuhaitzari
eta harridura hari ttiki bat bailitzen gordetzen dut ene begietan
euriaren eta arrastirien musua.

Osasun berri bat inauguratu beharra baitago
hilabeteetan desioaren aberria argiztatuko duena
eta utzi sustraiei izar baten egarriaz hazten.

Badakit patu oro
hutsa, ezereza eta bihotzean distira dagien sekretu baten
arteko elkarketa bitxia dena.

Eta argi horri eskaintzen diot neure burua, biluztasun eta erredura,
goizalbako sua, zeru dardartiaren soslaia
amets batean bezala denborari eta heriotzari
ihes egiten dien bertso honetan.

Gailegoz idatzia; itz.: Miguel Anxo Fernan-Vello eta Juan Luis Zabala.

A VIAXE

A Jordi Virallonga

DESEXO neste poema que a flor da lonxania
veña azul sobre min, agora que parto e deixo o mar
e unha terra escura descobre no meu sangue
o vello camiño da tristeza.

Vou ao Sul. Procuro a suave dirección doutros días,
a luz branca doutros corpos.
Abandono a cinza e a miséria deste tempo
atado aos homes e ás mulleres dunha cidade extraña
como o vento que cruza desolado as suas ruas.
Vivo entre bárbaros e todo horizonte é un alivio.
Por iso me despido da última árbore
e conservo nos meus ollos como un gume de asombro
o beixo da chuvia e os crepúsculos.

Porque é preciso inaugurar unha nova saúde
que ilumine nos meses a pátria do desexo
e deixar que as raíces medren coa sede dunha estrela.

Sei que todo destino é unha rara alianza
entre o vacío, a nada e un segredo que brilla
no corazón.

E a esa luz me entrego, nudez e queimadura,
fervor de alva, perfil de céu que treme
neste verso que foxe, como un soño,
do tempo e da morte.

MIGUEL ANXO FERNÁN-VELLO

**Bitoriano
GANDIAGA**

**Xabier
GANZARAIN**

EGON. Geldi t'edegi egon,
gora-begira-narez,
arima aidean ta alturan lagata,
zurrun ta iratzarri aintzira azpikoez,
arnasarik gabe.

Artu, etorri-ala gaikien gereiza
ta egon zabalik, goruntz eta luze.

... Ta erne... Ta joan...
Igon, geldiro, goizeko argiak
zerura bezala,
barri edo atsegin gaztez
ta aundi.

Ta igon ta lasatu,
eguna legez, aidean
ta joan, askatu t'edatuz,
goruntz eta aundi beti,
zabal ta urdiñeko
izarrei darien
sua, gozokiro
t'eskas alderatuz.

Murgildu ta atera,
gelditu ta joan
ta atera ta egon...,
ta joan, alde ta igesi aldakorrik gabe,
muga t'elbururik
ertzetan ez daukan
askatasun libre
azkengaberaíño.

Ta egon, joanez,
ta egon, altxatuz,
t'edegita egon,
gora-begira-narez,
ta urten, egunak legez,
ta urten eta ibilli,
alde eta igesi gabe,
leioaren geldi ta
begiaren luzez.

BITORIANO GANDIAGA

ELURRAK DENA
ILUNDU ZUENEAN

ELURRAK dena ilundu zuenean
ikasi genuen loreak edaten
ikasi genuen panpinak ahazten
ikasi genuen isiltasuna maitatzen

Elurrak dena ilundu zuenean
ikasi genuen edaria loratzen
ikasi genuen Heriori barre egiten
ikasi genuen maitasuna isiltzen

Elurrak dena ilundu zuenean
hasi ginen bizitza ezdeusa
ttanttaka desegiten
eta estalki zuria desagertzean
hasi ginen desamodio garratzak
ttanttaka barneratzen

XABIER GANZARAIN

**Joxerra
GARZIA**

**Mikel
HERNANDEZ
ABAITUA**

HASIERAN Jainkoa zen
eta Jainkoa hitza zen
eta hitza mutu
eta Jainkoak ezerezetik sortu zituen gauzak oro
–bizidun eta bizigabeak–
baina mutu zen eta
Adam sortu zuen lokatzetik
–loaren atzetik–
eta hitza eman zion
izenda zitzan gauzak oro
–izen eta izan zitezen–
eta Adamek izendatu zituen
denbora, leku, zeru ta lurak
izar, ilargi ta eguzkiak
haizea eta animaliak
ur gezak eta gaziak
–bakoitza zegokion izenaz–
eta izenaren arauera izan ziren denak
eta deitu zion Adamek ezerezari Jainko
–ez baita on gizona bizi dadien bakar–

JOXERRA GARZIA

ASPALDI

ETA inori ez zaizkio gustatzen
hildakoen ahotsak
eta beste batean esan nizun
nola suntsitu zen
munduaren maitasuna
mustro erraldoi eta ketsuen azpian
nola esan zion honek hari
zeruaren aterroek utzi zituzten zauriak
tirita sikodelikoz beteko zituela
aspaldi, oso aspaldi
munduaren lurruna oraindik haur zenean
inprimategirik ez zegoenean
aspaldi oso aspaldi

MIKEL HERNANDEZ ABAITUA

Lierni
IBARGUTXI
Juan Kruz
IGERABIDE

HERIOTZARI NEGARREZ

Han urrunean
ikusten haut
Heriotzari negarrez
Hire aurpegiaren gozotasuna
erreka isil eta gaziak
busti dik

Baina
sakontasun garratzean
oraindik ere
somatzen dizkiat
hire begi bizien betiko grina
hire begien dizdira
hire begiek xuxurlaturiko
hitz mutu eder guztiak
kateaturik
lausoturik

Han urrunean
ikusten haut
Hainbeste gauza esateke
Baina
hi ere kateaturik hago
Oihuak
eztarrian itotzen zaizkik
min gorra sortuz
egonezina handituz
Hire bihotz beroaren taupadek
ez diate maitasun kanturik abesten
euren doinuaren
esklabu dituk
jarraitu nahi ez diaten
erritmoa jarraituz
Eta
hi ere esklabu haiz
Kate ikustezinek
arima mindurik utzi diate

Han urrunean
ikusten haut
Eta
ezin diat ezer egin
ezin diat eskua luzatu
ezin haut besarkatu
ezin dizkiat malkoak lehortu
ezin diat ezer egin
Hi han hago
bakartasunaren itzal hotzean
Heriotzari negarrez

LEIRE IBARGUTXI

OILARRA

OIH^{HA}LEZ estaltzen ari dira
leiho itxiak,
gaur larunbata baita
eta aimariak jo baitituzte
elizdorre erotuan.

Plazaren erdi erdian dago
tente tente oilarra:
arratsaren arnasak
gangar gorriari txinpartak
ateratzen dizkio,
gaur larunbata baita
eta aimariak joak baitituzte.

Errosario zahar batzuk
jiraka hasi dira bateratsu,
otoitz amonduak lotuz,
gaur larunbata baita
eta aimariak joak baitituzte elizkanpai
izutuan.

Leihoetako oihalek
ilunagotu egiten dituzte etxeak,
oilarraren begietako
diztirari sarrera debekatuz,
gaur larunbata baita
eta aimariak joak baitituzte
eta apustularia hilik baitago
bere oilarraren hankapetan.

JUAN KRUIZ IGERABIDE

**Imanol
IRIGOIEN**

**Joan Mari
IRIGOIEN**

ITZAL LUZE

*Itzaltzen ari
bizitza...*

JOSEBA SARRIONANDIA

GAUZEN esentziak
–itzal luzeak bezala–
ihes, ihesi doaz beti,
bakartiak,
Herioren itzal more
luzeagoan
izkutu arteraino

IMANOL IRIGOIEN

DAMASKORAKO BIDEAN

KOSTA ahala kosta
zure gorputzean gora igoko naiz,
oker-oker eginda,
suzko huntzaren antzera, bihurka,
nire zainak zure zainetan txertatu arte,
Syriako arrosa nigan lora dadin
hegazti gorputz-gabe bat bezala,
argi zabalean.

JOAN MARI IRIGOIEN

**Amaia
ITURBIDE**

**Felipe
JUARISTI**

KAIO-HEGOAREN
itsas-itzal bare-dongea
arrats behera bakoitzean
beti inguru-minguruka
kaio-hego negu-gris ezabatuaren
oren geldia

AMAIA ITURBIDE

ITSASO

— ITSASALDETIK datoz olatuen printzak,
kaio saldoak, euria, logura,
leioa astintzen duen haizea,
baina zure gutunik ez aspaldi honetan.
Eta niretzat itsasorik ez balego bezala da.
Bizi naiteke hari bizkarra emanda,
ez badakar zure usain gozoa.

FELIPE JUARISTI

Gabriel
KORTA
Mañex
LANATUA

Pozik zihoan txoria
haizetan txirulari,
alanbreaz ez jakin
hegoak libre baina,
trabeska mokoa.
Mugetaz ez jakin!

GABRIEL KORTA

HIL EZINEAN

Hil ezinean, zeru lurren mugak tirantzen dira
goiz gardenen urretan.

Hezurak ur bilakatu zaizkit, larrua ideki.

Koloreen hegalek altxatzen nautelakotz,
dardara doidoiean, izarren hats urdinarekin
nago musu betirakoan.

Ur errekan ur joaiteaz ez dut damurik,
gau ihintzen bustitze ixiletan leherrakatzen
bainaiz, samurki, inoxentzien ixurgitik.

MAÑEX LANATUA

Karlos
LINAZASORO
Gerardo
MARKULETA

ZATOZ

ZATOZ etxera azken orduaren zantzuan;
jazminek erakusten dizute bideska.
Eta ez esan ezer eta ez begiratu atzera;
kare bizi dira iada mariak eta hondar urre.
Zatoz goiko bidetik eta zain izango nauzu;
gure etxea oraindik kirkerrek bustitzen dute.
Zatoz azkar ibaiaren zilar azal bideratuan
eta lokartuko ditugu musu batez bi txori.

KARLOS LINAZASORO

ANTIGUALEKO ALTZARI

ANTIGUALEKO altzari erosi berriaren antzo,
bizkar gainean eraman ohi dinagu –goizero– egun berria.

Bazkalosteko lautadan, zer egin:
zur zaharraren marrazkietan begiak galdu,
sitsaren zauri markak leundu,
ate korrokilduen jokua behartu,
altzariak
iluntzerako
ixilpeko gordailua izkutatzen digula jakinik;

eguerdirako bai baitakigu
sekretua argitzerik ez dugula
eguna suntsituz ez bada.

GERARDO MARKULETA

Luis Mari
MUJICA

ASE NAIZ ETA EGARRIZ

Ase naiz eta egarriz,
egarriz nago eta ase
(egarri hau bukagabe),
zure ederrean, izadi,
osoro asetzen naiz ni,
nork sartu nau hontan mozkor
ederduraren zorakor?

Ase naiz eta egarriz,
eder honek ez du orde
(ezer ederraren pare!),
izadia dut nik eliz,
leiho eta on nagusi,
izadia *izadiago*,
ederra nik *ederrago*.

Ase naiz eta egarriz
(egarriz nago eta ase),
haitzak, hitzak (gauzak ere)
osoagoak gaur neri
(ederra hain eder zergatik?),
eder honen goia bizkor
izadi lerden honi zor...!

Ase naiz eta egarriz
naturarengan osoro,
berak dida *eder* oso.
Paisaje isilak nau bizi
(ah, ederra dut gehiegi),
alaitua ni guztiro
bidean ibiliz gero....

Ase naiz eta egarriz
(egarriz nago eta ase
naturak naularik bete),
ni nahiz betea, *nahiz* hutsik,
izadiz nago gaindurik,
plazer honek ez du azken
ederra delako goren!

Ase naiz eta egarriz,
argiaz *hutsa* ez da hain *huts*
(argia *argigoa* biluz),
natura da ene argi
—berak aspalditik daki—
naturarengan murgilduz
nik zorionaren gailur.

Ase naiz eta egarriz
(egarriz nago eta ase),
ah, egarriok zatozte
niregan dena kixkaliz!
Poeta hau aseta dabil,
eder goia dela eder
lehen etzitzaidan hain ager!

Ase naiz eta egarriz,
(aseaz egarriago,
egarria sekulako!),
ederra dut barruegi,
eder hontaz ezin etsi,
natura hau ote den *Jainko*
galdez nabil egunero...!

LUIS MARI MUJICA

Inazio
MUJIK
IRAOLA
Omar
NAVARRO

NOTARIO AGIRIA

Ez ni hilerrian lurperatu, gero,
ez dut eta antzinateko hilen
begirada aztertzailea nere gainean izan nahi.
Lurperatu, bai, mendian
gerezi parela belarritik zintzilik,
ez baituzue leku faltarik izango.

Eta kasualitate batengatik
legeak edo historiak kontra badira,
eta ezina gertatuko balitz nere haur ibilaldiak
gordetzen dituen eguterako belaze hartan sartzea,
ez okurritu ere, gero, hilerrian sartzerik,
hil asperren zurrungaz inguraturik,
haien burezurak trostan ikusiz, buruzuritze bidean.

Erre nazazue, bai, erre,
horra hemen idatzia utzi.
Iristen denerako, erre nazazue
errioxa ttantta bat su piztaile,
nere gerezi eta giltzurrinekin.

Eta haizezta itzazue errautsak belaze hartan.
Etxe atzeko muinoan. Hiru mendi-tontorren anfiteatro pean.

Hil ondoren, enbarazu pittina izango naiz zuentzat,
egun naizena baino gehiago,
kear ilaunak, sudur-mintzetan gora kilimak eginez
doministiku egitera bultzatuko zaituztetenak.

INAZIO MUJIK IRAOLA

MARTHA

OPERATOR, number please
Han pasado tantos años
oraindio be nire ahots garramatuaz akordatzen zara
mientras lucho con las lágrimas
Hello, hello there, is this Martha?
Neu naz, Tom Frost aspaldikoa
Now I'm calling long distantziatik
no te preocupes por el coste
ze berrogei urte edo más pasatu dira
Now Martha please akorda zaitez
vamos a tomar un café
Well we berba egingo dugu about guzti hori
And haiek izan ziren días de rosas
poesia eta prosazkoak.
Martha nik nuen guztia zeu
y tú solo me tenías a mi
There was no tomorrows
Enpaketa ditzagun nuestros sorrows
and we bidaliko ditugu urrun eta los olvidamos.
And I feel so much older now
zu ere zaharragoa zara
cómo están tu marido y tus hijos?
You know I got ezkondu también
Lucky that you aurkitu duzu norbait
Con quien sentirte seguru
gu hain ginen gazteak eta zoroak
Now we are maduroak.
Y aquellos fueron días de rosas
Poesía y prosa
Martha all I had was you ett^a
Yo era tan impulsivo
Oraindio be halakoxea naizelakoan nago
Y lo único que importaba
Was that I era gizon bat
Supongo que nuestro destino
ez zen elkarregaz bizitzea
And Martha
I love you can't you see, no lo ves, ez duzu ikusten ala?

OMAR NAVARRO-TOM WAITS

Joan
NAVARRO

MOIRA

Kehren die Kraniche wieder zur dir?

F. HÖLDERLIN

IZOTZA ezpain artean. Suak ihes egiten du ene gorputzetik. Gudua galdua dago eta ezinezko hitzaldi bati ekiten diot: *Ilargia zutabeen artean mugitzen zen*. (Ikusteko sentzazioa izan, eta zentzuen bestaldearekiko mutu geratu, ilargiak zutabeen artean dantza dagien bitartean, eta gurdia, hilerrira bidean, euriak lokatza artean agerian jarri dituen oilarbuztanen bulboak zanpatzen. Orain da eta inoiz ez. Hitzaldi ezinezko hau. Hitz egin ezin daitekeenaz hitz egin, lengoaiaren eskeletoaz maitemindutako Vienako filosofoaren aholkuari jaramonik egin gabe. Orain da eta inoiz ez: zuek ez daukazue ene begiradako sua ikusterik. Zauritu egin naute, zauritu egin naute. Odolez zikindua dut bularra. Ilargiak ene azala erretzen du, argia erretzen du. Gurdiak ene gorputzeko egurra darama. Zergatik egiten duzue negar? Itzal artean nabil eta hotza ukitzen dut ene ezpainen zauriez. Planeten herrialdea begizatzen dut, esferen dorre eskerga, haizearen kantu aintzinakoa basoa zeharkatzen duenean, lurraren errailetan areto mineral zabalak argizatzen dituen haizkora. Uretan ikusten dut ene ihardespeneren irudia. Suzko gurpilek ematen diote su gauari, zeruetatik eskegitako hagak erretzen, gar biziko errautsen antzeko ahateak muga konturik batere ez dakien espazioa zeharkatzen. Non ezkuta nezake ene oinazea, arima jaten didan pena hau, eremu hau, paisaia mortu hau? Norena da ahots hau? Nork esan dit, ezkutatuturik: *Jaurti zure ogia uretara, bete lurra zaldiz eta gero ihes egin, lasterka egin, ezkuta zaitez hautsetan!* Suzko gurpilek ematen diote su gauari eta sutan daude zeruak. Heriotza izaren gainean zabaltzen da larrua jo eta gero: bi ezaztapenen artean isiltasunezko hutsunea zabaltzen da. Oi, ene begiak zaldien zangoen azpian, martxoko lokatzen eta zelaiak zauritzen dituen ilargiaren uztaiaren artean zabaltzen ari diren oilarbuztanak! Itzuliko ote dira bihar erroiak lurralde haiek betetzera? Alferrikako eta ezinezko hitzaldia hitzak salbatuko zaituela uste duzunean; gramatika eta Jainkoa asmatu dituzu, baina azarean jaurtikitako dadoak ditugu agintari. Nori hitz egiten diozu, hitzaldia bizitza ez dela jakinaren gainean?)

Katalanez idatzia; itz.: Octavi Monsonís eta Juan Luis Zabala.

MOIRA

Kehren die Kraniche wieder zur dir?

F. HÖLDERLIN

Gel als llavis. El foc se'n fuig del meu cos. La batalla està perduda i començo un discurs impossible: *La lluna es movia entre les columnes*. (Tenir la sensació de veure, i restar mut a l'altra banda dels sentits, mentre la lluna balla entre les columnes, i el carruatge, que fa el camí de creu, aixafa els bulbs dels gladiols que la pluja ha anat descobrint entre el fang. És ara i és mai. Aquest discurs impossible. Parlar del que no és pot parlar, malgrat el consell del filòsof de Viena enamorat de l'esquelet del llenguatge. És ara i es mai: Vosaltres no podeu veure el foc de la meva mirada. M'han ferit, m'han ferit. Tinc el pitram brut de sang. La lluna em crema la pell, crema la llum. El carruatge s'enduu el fustam del meu cos. Per què ploreu? Camino per les ombres i toco el fred amb les nafres dels meus llavis. Albiro el país dels planetes, l'enorme torre de les esferes, el càntic ancestral del vent quan creua el bosc, la destrat que il·lumina, al si de la terra, les amples sales minerals. Veig a les aigües la imatge de la meva rèplica. Rodes de foc incendien la nit cremant les bigues que pengen dels cels, ànecs com cendres vives travessant l'espai que no coneix fronteres. ¿On podria escondir el meu dolor, aquesta pena que em menja l'ànima, aquest desert, aquest desolat paisatge? A qui pertany aquesta veu? Qui, emboscant-se, m'ha dit: *¡Llença el teu pa a l'aigua, omple la terra de cavalls i després fuig, corre, amaga't a la pols!* Rodes de foc incendien la nit i cremen els cels. La mort s'estén sobre els llençols en acabar de fer l'amor: entre dues negacions s'obre un buit de silenci. ¡Oh, els meus ulls sota les potes dels cavalls, gladiols esclatant entre el fang de març i l'arc de la lluna que fereix els camps! ¿Tornaran demà les gralles a omplir aquelles terres? Inútil i impossible discurs quan creus que la paraula et salvarà; has inventat la gramàtica i Déu, però els daus de l'atzar ens governen. ¿A qui parles, si saps que el discurs no és la vida?)

JOAN NAVARRO

Juanjo
OLASAGARRE

LABANA

JAKITEKO nola erahil
ez duzu manualen beharrik
har nazazu soilik
eta
mintzo ezberdinen doinu sarkorra
entzun
hil, erahil, kill,
matar, toten, assassiner

entzun entzuzazu
eta ferekatu
ene arrangura hotza
beiraduran ari da isladatzen
poz ilun batez
otso amultsu bailitzen
ilargiari uluka

Egia da bai
beste tresna batzuk
erabil ditzakezu
beste metodo batzuk jarraitu
baina sinestazu
ene prestutasunez
ez da inor bihotzeraino heltzen
inor ez.
Ez dizu inork nik bezain ongi
heriotzaren gorria erakutsiko.

Pozoina?!
pozoina erabili dezakezu noski
baina aurpegikera laru batek
ez dizu odolaren beroa sentiaraziko.
Motozerra ere
izan daiteke borrero
baina karibiar sensualitatea,
enpalagu itsaskor bezain nazkagarri hori,
ez dut aholkatzen
iparraldeko bihotza duen
gizon batentzako.
Nazkatuko zintuen.

Zintzoa, zalua, prestua
dotorea eta aldi berean lizuna,
fierra bezain azkarra eta
zehatz zehatza, ni nauzu egokia.

Jakiteko nola erahil
ez duzu manualen beharrik
har nazazu soilik
eta zure bihotzean
zure bihotzean sartu.

JUANJO OLASAGARRE

**Jose Luis
OTAMENDI**

**Berta
PIÑÁN**

EHUN arrazoitik gora ditut ubikuitaterako
eta beti erakutsi behar izaten dut bertan ez egona
etengabe frogatu beharra daukat
erosketak egiten ari nintzela
frankotiradoreek amari eman diotenean
osaba eritetxetik ateratzera joana naizela
ogia banatu duten garaitsuan lo nengoela
eta zu zintudala ments, ez bakea
ustekabeen faxista bilakatu da elurra
eta faxista bilakatu da adiskidetasuna
faxista da uranioa eta hiriko kurloiak faxistak dira
souvenirrak bidaltzen ditugu setiatzaileen mendietara
mutilazio ikusgarriak erakusten dituzte hiletan bildutakoek
zirkoko famili-argazki batean bezala
irri egiten dugu nortasun agiri pilatuen ondoan
lehertu beharreko kaserna omen da zuen bihotza
baina edalontzien ipurdian idatzia dago hurrengo zita
simulaziozko batailak eta amodioa
simulaziozko larritasuna eta mapak
sabeliztunak gara ekialdeko kanposantuetan
hil zaitzateten eta ahantz zaitzategunerako
koartada ona behar dut
ohar ofiziala izanen da egunaren argitzea bihar

JOSE LUIS OTAMENDI

10 XULIO, 1990

NADA nun tengo que t'ofrecer. Nenguna riqueza
que date. Nin la cabra d'oro onde durme'l sueñu
de los siglos, nin la fráxil flor y ardiente del olivu,
nin armadura y antiguos guerreros, la so gloria o fortuna,
nada nun tengo. Namás esta casa, los silencios, les duldes,
el sabor cercanu de los díes felices t'ofrezo.
Que pa tí seya la mio estación más cálida, la fruta más puro
de los besos y en tí seya fonte y ríu y renovada promesa
el mio deséu. Que los años que vienen traigan tardes
mui llargues y entre el sol como agora pela ventana abierta
rescatando pa nosotros del tiempu,
l'amor y la dicha.

BERTA PIÑÁN

1990EKO UZTAILAK 10

EZER ez diat hiri eskaintzeko. Ezein ondasunik ez
hiri emateko. Ez urrezko ahuntza, mendeetako amets
lokartuaren gordailua, ez olibondoaren lore hauskor eta gartsua,
ez gudu-jantzirik ez antigualeko gudaririk, ez haien loriarik ez altxorrik,
ezer ez diat. Etxe hau besterik ez, ixiluneak, ezbaiak,
egun zorionsuen zapore hurbila baino ez diat eskaintzen.
Hiretzat izan bedi nere garairik epelena, musuen fruiturik
garbiena eta hire baitan, iturri eta ibai eta promesa berriztatua izan bedi
nere desioa. Arratsalde luze-luzeak ekar ditzaten
datozen urteek, eta oraintxe bezala sar dadin eguzkia leiho irekitik,
eta denboraren baitatik berreskura ditzan guretzat,
maitasuna eta poza.

Asturiarrez idatzia; itz.: Gerardo Markuleta.

Jasna SAMIC

HERIOAREN MEZULARIA AGERTU BAINO LEHEN

EZ nituen nik, baina ardo eta usain zoragarriek
haren ezpain gorrixka xugunak laztandu,
gero, nere larru daldartia
argizagi bete honen zain sutan ziren zango-besoak
hunkimendu zituzten
gauaren hutsalean

gozo eta zurbail zen
zeruen irekitzaile bailitzan

(zerua, zeru ainitzez hantu altxorra zen)

nere gaua haren balaka samurrez hautsiz
gaztetasuna iragartzen zidan
etengabeko laguntza
gure gorputz laguntza
gure gorputz batuen ekinkizun zelestiarra

Jainkoaren maitalearen gisa
deitzen nuen, eta hura baizik ez,
haren izena xuxurlatzen nuen eztiki
betikoaren ikurra zen
edertasunaren birjinaren aurrean
intzirinaka gurtzen nintzen
ikaran luma haizetan bezala
barne-begiaren jabe zena

zeru sakonean sartu zen
eta bela askoren atzetik
edertasuna azalduko denean
izarbel hegaldunetan ikusiko da
mirail batetan nola

eta herioaren mezularia agertu baino lehen
maitatuko du eta higituko da
itxuren itzalak dantza hitsetan hasiko dira
biribilkan, ingumak, sekulakotan
besarkatuko du eta harengan higituko da
izarbel hegadunetan

Serbo-kroazieraz idatzia; itz.: Jasna Samic eta Itxaro Borda.

PRIJE NO ŠTO VJESNIK SMRTI POJAVI SE

Ne nisam ja nego vino
I opojni mirisi što nas okružili
Dali njegovim usnama
Da dotaknu uzdrhtalu kožu
Moje udove uzavrele od čekanja
Mjesečine
U pustinjskoj noći

Bio je blag i bijel
Kao da je nebesa otvarao
(Nebo je kutija bilo s bezbroj nebesa unutra)

Poloveći moju noć svojim dodirom
Bacajući varnice zatvorenim očima
Učio me mladosti davanju
Nebeskom *zikru* naših tijela
U kome sam sazivao Jedinog
Njegova imena pominjući
Izgovarao ih poput *ašika*
I njišući se lijevo desno
Netaknutoj ljepoti se klanjao
Znaku Sveprisutnog

Ko Untranšnjim okom motri
U dubinu neba potonuce

A kad se iza velova Ljepota ukaže
Kao u ogledalu
Ugledaće sebe beskrajnim na krilatim zvijezdama

I prije no što Vjesnik smrti pojavi se
Ljubice i tonuće

Sjenke privida plesaće svoj samrtnički ples
I kružiti kao utvare
I prije no što Vjesnik smrti pojavi se
Ljubiće i tonuće
Na krilatim zvijezdama

JASNA SAMIC

**Jose Maria
SATRUSTEGI**

**Asier
SERRANO**

MARI

T^XORIEN doinu goiztarrak
eten du
Indarren lurpeko gelan
negu beltzaren lozorro
astuna erdiz ametsen loreak.

Urrezko orraziaren
errainura orraztuta
argitsu
bere aurpegia,
laino zuriz estali du
–lotsaren
zirrara barrenaz–
bular oparoen
lerdea
Aralar, Anboto eta
Aizkorriko Damak,
mundura
biziaren xaramela
emea
eguratsaren hegotan
hedatuz
udaberriko zeruan.

JOSE MARI SATRUSTEGI

ORALPEKO ORATORIA

ADURRA masailetik behera
zurrunga hotsek
etsipen soinuekin
bat egiten dute.

Eta barrea senide faltsuak
hipokritak gogoratzean.

Lo zaude amona
eternitatearen esperoan.
Azal ximurtua
heriotzaren azken izerdiekin bustia.
Eta ezin atzera joan oroimena
oraindik maite zintudanean.

Eta barrea senide...

Gorroto hitzez
izkiriitzen dut
inork inoiz ulertuko ez duen
maitasun baten amaiera.

Eta barrea senide...

Hil nahi zintuzket
amatasunaren membruan
tiro bat emanez,
begi zaharkituetan
laban baten egarria asetuz,
haragi ustel hoiek
haizkora zatzada batez banatuz.

Eta barrea senide...

Baina hipokondriaren mugetan
bitartekariaren gaisotasuna nagusi.
Logale naiz
gauaren iluntasunaren argipean
amona eta hiloba
gorrotoa medio.

Eta barrea senide...

Penagarriena
agurra heltzean
zu hilkutxa beltzean
barre eginen dudala,
negarrean
senide faltsuak
hipokritak gogoratzean...

ASIER SERRANO

**Andoni
TOLOSA
Angel
ZELAIETA**

ORAIN sentimendu gehiago zerrendatzeko gai naizenez
esango dizuet
neu ez naiz poeta
superbibientea baizik
ez dut inongo titulorik nahi
eta gorroto ditut
handinahiaren poetika instituzionala
xamurtasun subentzionatuaren poetika hutsa
eta
insolidaritatearen poetika publizitarioa
ez bait naiz poeta
pizti sentibera akaso
beste askoren gisa
horregatik oinazea eragiten didate
taladro kolekzionisten festak
komisaldegietan
horregatik negar egiten dut
itxaropen ezak astintzen nauenean
gosearen portzentaietan
eta gorroto ditut
aitzaki baino ez diren poemak
amorruek edo maitasunik gabeko eremuak
eta
sentsibiltate epaitegiak
maite ditut ordea lagun batzuk
guztia aldrebes isladatzen duten ispiluak
eta
afinaziorik gabeko koloreak
izkiriaturik nituzke berriro horma berdinetan
gezala graffittiak
irristaturik nintzateke arkakoso berdinekin
gauaren ertzetan zehar
eta dantzaturik nuke
ozenago ahal balitz
porlanaren izerdi putzuetan
beste superbibienteekin batera
badago eta pekatuak zerrendatzeko
nahiko poeta jada

ANDONI TOLOSA

BARATZERA ZOAZ
oilarite joaz.

Berdeena zure Arratiko hitza
urrun mutu zaude nigar-gazteluan,
erroiak silio etxe-teilatuan
bihotz minez dago guztion bizitza.

Baratzera zoaz
oilarite joaz.

Hain xamur izanda, daukazu ezpata,
bigun izan arren, dagizu orroe,
hain gazte zarenez zauzkate morroe.
Hainbeste sokakin oraindik zarata?

Baratzera zoaz
oilarite joaz.

Zertarako gaua, inor ez badakar,
etxean argirik ez bada isio,
neska joan bada, inork ez badio
agurrik egiten, ez leun ez lakar?

Baratzera zoaz
oilarite joaz.

Pindar eta laino datozkigu bana,
zurubietatik etxez-etxe belak.
Aittak diostaz berbak itzelak,
galdua dugula plazako zarana.

Baratzera zoaz
oilarite joaz.

Ezagutzen duzu gure mugarria,
ferekatu ahal ezpaineak masaila,
zuhaitzen orriak haizeak bezala,
ala esperantza da negargarria?

Baratzera zoaz
oilarite joaz.

Itsaso ertzetik badoaz marloiak,
mokoan helduta ereinotz abarra.
Lortuko al dute gaztelu zaharra,
ala kurloituko denboren sasoiak?

Baratzera zoaz
oilarite joaz.

Urruti zaudela, zaude hain gertua,
eraman baituzu ortua zurekin.
Denbora badabil, ekin eta ekin,
nola itsutuko batelen portua.

Baratzera zoaz
oilarite joaz.

Usoen hegada, lilien zuria,
zein diren txikerrak, zein diren buguinak!
Iturri ttipien uda-itoginak
nahi dute esan dela iturria.

Baratzera zoaz
oilarite joaz.

ANGEL ZELAIETA

Okzitaniar Poesia

Hautaketa:
Alan Roch

Itzulpena:
Itxaro Borda

AITZIN SOLASA

Oroz gainetik Okzitania bere mintzairak mugatzen du. Osotasunean ente politiko-aministratibo sekula ez izatez Breiz edo Euskadiren gisa, erdiaroaz geroztik hazturik diren egungo hizkuntz-mugak ditu eremutzat. Nortasun eraikuntza hortan parezka joan da hizkuntzaren lehentasuna, eta eginkizun literario zein idatziarekin osotasunaren seinaletarik bat da. Zigilu pribatu pean, akto edo agirien papereratzeko hizkuntz erromaniko garaiza izan da, halaber literaturan. haren beheetatik iragan da Occitaniako lurren kanpo-iduripena, izenak berak erakustera emaiten duenaz. Frantses erregetiar kantzelariek aldiro erabiliko dituzten Occitania eta Occitan hitzarioetan Dante, berari zor diogu izendatze xoil hau, bidenabar trobadorsen lirika ospetsuari erreferentziatzen zen.

Hizkuntzarekilako, eta gainera olerki idatziaren ohitura handi hortaz nabarmentzen den literaturarekilako harreman horri, Oc osotasunaren ondar zenbaiten nortasunaren ekile, edo jasaile batzu, eransten zaizkio. Hala da, adibidez, Akitania, Behe-Arana, Tolosako Kontadoa edo Probentziari lotzen diren historia erreferentekin, edo molde ibero-erromanikoz bereizten den gaskoin-eleaz. Azken mendean agertu saio normazaleen artean, 1904an Etchegarayekin batera Nobel saria erdietsi zuen Frederic Mistralen (1830-1914) arrakastaren hildotik aintzina atera zen Probentziako okzitandar literario eredu bat. Berpizkunde esperientzia garaitik sortu zen Probentziako hizkuntz literarioak, gaurko mendean L. Alibert (1876-1959) harek ozkan jarri lengadok normaren lehianahia kurutzatu zuen. Eredutze¹ lanetik, hogeita hamar urte hauetan okzitandar molde guziek gehiengoki erabiltzen duten ortografia amankomuna ondoriotu zen. Halatan, grafia bateratuaren erabilpenak hein batetan baieztaturik, dialektoen berezitasunek literaturan iraun dute. Jarraitzen dute esperientzia komunaren eta desberdintasunaren dialektika batean hazten, Oc eremu guzian loratzen den *koine* literario batean, ertaroko lirikatik gaskoinagoa den XVI-XVII. mendeko berpizkuntzaraino. Ordea, garai berdinean, osotasuna, frantses literaturan nagusi izanen den klasizismoaren parean, ibai barroko batek zeharkatzen du. XIX. mende erditsutik honarat *felibrigeak* eta ibai okzitanista modernoak, 1904tik 1968erako bere lehen boladan bezain bat ondokoetan, konzepzioetan eta korrronteetan bere denbora oinarri amankomunak agertzen dituzte, ardura pan-okzitanistak diren erakundeen eginkizunetan.

Oraiko bilduma hontan argitaratzen diren testoak garai hortakoak direnez, idatz-suteak nagusiki lengadokar, probentziar, gaskoin eta limuziar eremu-

OHARRAK:

1) Ik Alibert, L. *Grammatica occitana segon los parlars lengadocians*. Tolosa, Societat d'Estudis Occitans, 1935 eta egile beraren: *Dictionnaire occitan-français d'après les parlars languedociens*, Tolosa, Institut d'Estudis Occitans 1965.

tan kokatzen dira Renat Nelli (1906-1982) handiaren obrak, 1945az geroztikako epoka modernoa aski zabalki estaltzen du. Hemen atxikiak diren izenetan ez badira Max-Felip Delavouët (1920-1990) delakoaren eta Bernat Manciet (1923) gaskoinaren olerkiak sartzen, biak alta maisuak, eta baldin limuziako Marcèla Delpastretaz (1923) aparte, lengadok aldeko jatorrizko ekoizpena badugu, gune horietako okzitandar idazkeraren bizitasunaren seinalea ikusiko dugu, bilduak diren zatien arteko lotura logikoarekin batera. Sensibilizazio antologia da beraz, bere iraganaz duin den literaturaren lantzea sekulan uzten ez duen multxo azkenean hedatuaren gerorako ezagupen sakonagoaren bidean, mintzairaren historiaren unerik ilunenean agian.

Hastapenean elementuak dira, Bordeleko bere egonaroan ero bilakatu zen Hölderlinen gerizapean abiatzen den segida kosmogoniko batetan, eta «bizitzaren aro sakratua purifikatzen eta askatzen» duena hemen. Premiazko galdei egin sarrera ederra, Nelliri propio zitzaion gibelalde manikeo horrekin «La luna dels Fraisses» bildumatik atera den poesiak ingurunea galdezkatzen du bere bilakaeraz. Natura, kontzientziaren eta zentzuaren haraindiaren seinale aska baten antzera: «ipurtargi belarraren sekretua». «Gure bihotz iheslariaren» eta zeruaren arteko harremana, bihiaren eta «ildoaren gezurraren» artekoa. 6. koplan, zumar-hostoak amets dira: konkretu bizidunak oparitu sinboloen onirismoa. Zakur mulikatuaren «Suaren doblea», adarbakunak laburtzen duen kontrarioen jokoa, infernuko pizti versus aingeru uhargia. Trobadors eta ertaroko jendarte okzitadarraren ganat eramaiten gaitu «Amodio suteak argia eta iluna nahasten du» hitzen oihartzunak, Orageko Raimbauden «Flor Enversà»² eta Nelliren katarismoari buruzko arduetara.³ Sorkuntza mineko dialektika hortarik, X. Ravier bere kritikaliaren aburuz desberdintasunezarekin edo nahasmenduarekin parekatu behar ez dena, «Indar bikoitzen ezeztapen leku hautu» gisa har litekeen ingurumena sortzen da.⁴

Dialektika horren ondorengo kreatuaren itxuraldaketak, Nellirengan arbolaren bitartez gezi natural bat aurkitzen du, bilduma aipatuaren lehen orrialdeetan agertzen eta 1974an argitaratu poema baten gaia izan dena. Bere erroez eta abarrez kreazionearen zatiak lotzen dituen ardatza da. Airezkorra da eta erroen hazte ainitzen eretzean lurreko ilunpeak ezin dira estanka egon.

Delpastrengan atzemaiten duguna. Nellirentzat, kreatuaren baitan urtzean hantzen baldin bada olerki-desira, behar baten idurira ixurtzen da poeta hemen, Saumes Pagans (1974) bildumatik ateraia den «Lo poëta» aintzintzen duen olerkian den arbolaren bidez batua den naturaren aipatzez. Arbola herri hil batetan zaharra da, baina idazlea desafio hortatik jazartzen da.

2) XII. mende erditsutan ekoizpen literarioa daukan Probenziako trobadors handia, ezaguna da hertsiaren eta «*entrebescada*» gisakoaren maisu bezala. Antagonismo sail gotorra gairitzen duen lili uzkailliaren gaiak, haren «*ar resplan la flor enversa*» olerki famatura eramaiten gaitu, P. Becq «neguaren bihotzeko barne bedats» baten antzera susmatzen duen hitz-jarriotasun trebe harrigarri batetan zehar (in Bec, P. *Nouvelle anthologie de la lyrique occitane du moyen-âge*. Avignon: Aubanel, 1970)

3) Ik. adibidez haren lana: *Journal spirituel d'un cathare d'aujourd'hui*, Paris: Resma, 1970.

4) In Ravier, X. "L'Ontologie du paysage dans la poésie de René Nelli" In: René Nelli (1906-1982) *Actes du colloque de Toulouse (6-7/12/1985)* réunis par Chr. Anatole. Beziers. Centre de documentation Occitane, 1986, p.243.

5) L'Arbre. zenbaki ga-bea, Succion aldizkaria (Tolosa) 1. zenbakia, 1974ko otsailan.

6) In «L'arbre» olerkian, *Saumes Pagans-en* (1. S) Institut d'Etudis Occitans. Novelum, 1974, 23. orr.

7) Ik. garai horri dago-kionez: Laffont, R. eta Anatole Chr. *Nouvelle histoire de la Littérature Occitane* (2. alea) Parise, PUF, 1970, 635-715. orr. eta Garavini F, *La letteratura occitanica moderna*, Milano: Sansoni, Accademia, 1970, 92-171. orr.

80 Ik. Gardy Ph. *Une écriture en archipel: cinquante ans de poésie occitane* (1940-1990) Eglise-Neuve-D'Issac: Federop 1992, 21-36. orr. *Lo Secret de l'Erba* 1934an hitz-lauz agertu zen lehen aldiz, gero Max Roquetaren *Verd Paradis I, bilduman*, bigarren parte bezala (Tolosa: IEO, 1975, 12-35. orr.)

9) Institut D'Etudis Occitansek argitaratu bilduma (Tolosa)

10) Ik. adibidez *L'étranger del dedins e autres poèmes politics/ L'Etranger du dedans et autres poèmes politiques* (argitalpen elebiduna) Parise: PJ Oswald, 1972

11) Korrante horren hunkimen osoa edukitzeko ikus: Martel Ph. "Poésie révolutionnaire en occitan in: Vingt ans de littérature d'expression occitane (1968-1988)". *Actes du colloque du Château de Castries* (1989-10-28) Montpellier: Section Française de l'Association d'Etudes Occitanes, 1990, 64-73. orr.

Bizi denez ere ez dakien herri batetaz mintzo

«Queu pais» poeman, hor dagon olerkia aurreratzen duenetarik batean, idazleak dio «bizi denez ere ez dakien herri batetaz mintzo» dela. Poetaren agerpen arketipikoak oraino dudazkoa bezain krudela den herriaren herioaren baitako fedeak, haren berpiztea erreztu behar du. Idazlearen oihua, handitzen doan arbola da eta «bizitzaren eta heriotzaren betiko arpegia dakar egunaren eguzkipean». ⁶ Autore lirikoak kausitzen du hortan profeta eta bizitzara itzultzeko mago eginkizun mistraliarra, azken konzeptu hau Delpastrengan, felibrigoen ohituretan baino erralagoa izan arren.

Halatan, felibrigoen ⁷ aixolbean sortu ekoizpen aberatsetarik landa, iragan mendearen erditsuan eta XX. mendearen hastapenean, betikotasuna eta doinu epikoa laguntzale, trebezia onhartuarekin Paradisu Galduak azpimarratu zituzten askok orduan, eskema hori aldatuz, Nellik zubia egiten du. Sinboloa eta ekaiaren uztartzeko bere moldeak segurtatzen du itxuraldatzearen bitartezko errealerako itzulera bat, mitoen mundurainoko ihes bat baino. Delpastrek ere hein batean zilegitzen du esentziaren umilaren balio eta lehentasunerako itzultze hori. Max Roqueta (1908) beste handi baten «Secret de l'èrba» ⁸ olerkian antzemango duena Ph. Gardyk, Nelliren «ipur-targia» deitu 1. koplari oinarrituz.

Bere lekua hilotzen artean duen poeta

Bizitzaren eta heriotzaren artean murgiltzen baldin bada Delpastren poeta, Ives Roquetarena (1936) osoki hilotzen erdian dago, hain baita indartsua poesia okzitandarraren beste abarrean herriaren eta mintzairaren denborak bereizi direlako iduripena. Konkretuderako itzuleratik ikusten dugu hor, historian eta jendartean partehartzea. Eroetxeetan edo hilerrien hormetan bermatuz idazten duenaren itxura azkarra da, 1958an ⁹ agertu «Escriveire public» haren oihartzunez.

Joan Larzac (1936) Ives Roquetaren anaiaren textoak ere agertzen digu haragizko egi nahikunde grina bera. Egutegiak, nekazal nostalgiaz mukurru-sahats sapadunezko abarrez eskuz liatzen ziren ogi-ezpalen aroa- kasik biblikoan egunerokotasun lasai desira bezalakoa aipatzen du, 1970 urteen inguruko okzitanismoan engaiatu apezaren olerki politizatuen osagarri edo aldean. ¹⁰

1968ko poesia instrumentala ¹¹ sartu ez den antologia honek, iduri du beraz herriaren eta mintzairaren harahonaraten miraila, errealtatearen galdezkatzeko apailatua, eta Ives Roquetaren olerkiko -eta zoriona da- egizkor erraiteko arriskura heltzeko, publikoa izaiteko hautatua den idazkera bat da. Egiaren bilakuntzaren alde asko azaltzen ditu, ahalezko konkretura

irixteko, hizkuntza sozializatuaren gibelatze frankoaren onharpenei begira, poesia poesiaren hazkurri poetak egiten duen bere aukera propioa.

Beginenean dugun Alan Rochen (1952) «*Poëma de Res*»-ek rap soinu bati pentsarazten digu, eta deritzionearen zigilupean koka genezake. Hitzekilako joko xoilak, fantasia orotarako gertu dagoen hizkuntza batean, edo nihilismo eta aipamen hilezko («Ziprea baten ezereza agian») ez baitakigu inguratzen duenaren ixpilu-bahea moldatzen duen poetari lotzen zaionez barne oso bateratua ala/eta itxurapen hedatuago baten alegorizazioa.

Azkonarroaren oihua

Miquel Decor (1949)en azken poema, Lo Pastre de las Estéas (1993) bildumatik, lurpeetan gorde aberetasun sinbolikoaren bitartez tranzendatu esperantza baten itzultzearen seinale litzateke. Ixtant baten bake-eskakizuna dioten hitz funtsezkoak, doidoia puntuatuak: «Betiereko bozkarioaren bihi ttipia» kraskatuko duen unean azkonarroak (Lo Tais) botako duen bere oihu basatia. Bizitzako ale xumeen atsegin hor ere, xehetasunen egokitasunak gauzen bihotz orekatuan sartzen hori baimentzen du.

Idazkin engaiatuarekilako urruntasuna, gero ere ezerezaren zeharkatzearen ondotik belar eta egi biluzien arrasean egoiteko, airearen ezirik ezienaren hartzeko libre izan, azkonarro diskreto bilakatuz. «Otso eta zakurrartean aihena moztan duen mahastizainaren bakearen leinupean lurraren joria har. Xendra ainitz saiatu dituen idazkera batentzat errealarekilako distantziaren lantzea dea edo salbatze-haidurugo bat? Ez dea ere, Nelliren galdera ontologikoetarik norberantzeraino, gaurko poesia okzitandarraren adierazpen molde bat, mintzairaren eta hitzen altzoan hazia? Portamodu hori Oceko poetaren statusarekin harremanetan jartzen ahal da: bizi-profeta Delpastrekin, egiaren lekuko Roquetaekin, Decoren bidez geriza gisa konkista berrieta-rako hitzak eraikitzen.

Behialako lerroek ez dute bapateko iduripen eta aipamen zenbaiten ataria pasatzeko asmorik, poema hauen irakurketa nahiz berrirakurketaren kariatara, alta partekatzen dituzten kreazio esperintzia guzien berri eman ez dezakete eiki. Haratago, naturari buruzko oinarritzko galdeen agertzeko gai dira botz hauek, gaurko egunean, bere mintzairaren eta bere kulturaren jakile den poeta okzitandarraren betekizunez.

ALAIN VIAUT

Itzulp.: Itxaro Borda

Renat NELLI

LO METRE ANTIC

QUE volete? Soi trevat per l'antica misura: l'escoti
Ritmar lo còr de Properci e la folor d'Hölderlin;
Car es pus jove que ieu, e totjorn purifica e desliura,
dins mas pulsions mai segretas lo temps sacrat de la vida.

IZARI ZAHARRA

ZER nahi duzue? Izari zaharrak betetzen nau: Hölderlinen erotasuna eta
Propertzioren bihotza neurtzen entzuten dut. Nik baino hobeki zaindu du
gaztetasuna, eta beti, nire jaidura sekretuenetan, biziaren denbora
sokratua garbitzen eta askatzen du.

Renat NELLI

IPURTARGIA

Oihanaren sakoneraino ninderaman Sylphoren baten leiho argistatuak,
baina ametsunea zeharkatu arren, ez nuen sekula aurkitzen,
gau zoragarrien atarian, haurzaroko altxor baten moduan,
belar-sekretua nire oinetan erretzen zuen ipurtargia.

KIRKIRA

Kirkirak ez daki non kantatzen duen. Bere ahotsean hiltzen da.
Izarra daldaraka dabilalarik zeru eta pentze artean, gauari aintzinatuz,
agianitzen du beharbada, udak oraino ere gaztetasuna erantsiko diola.
Halaz, bihotza, egun eder baten apaleraren gibelatzen saiatzen da.

Ereiteen garaia da: bihika, ixtanpatez, argitzen da,
Botatzen duen eskuaren eta hildoaren hutsaren tartean.
Zeru guzia dilindan dago, izar uhar bat baizik ez da
Betiko xoilak: gure bihotz iheslarien ganako haren harremana.

LEIZAFINA

Haize arin argiaren hatsak buha beza,
Eta larrazkeneko usainek beti duten oroimen gustuarekin nahasten da lurrarena.
Eta eguzki-leinuruak –azkenak– arra-tindatzen duen leizafina,
Haren hilzoriko uhargitasunean oraino ere bizkortzen da.

LA LUSETA

Luènh dins lo bòsc me sonava d'un Silf la fenèstra aclarida;
Mas podiá pas jamai júnher -tant de sauneis que trepessi-
Que la lusetà cremant, al broal de la nuèit fabulosa,
Son segret d'erba a mos pès com un tresaur d'enfantesa.

LO GRILH

Sap pas ont canta, lo grilh. Se morís dins sa votz : Quand l'estela
Clinha entre cèl e pradal e desavança lo ser,
Benlèu espera un demai que l'estiu a jamai renovele,
Com al tremont d'un bel jorn lo còr s'atema a sostar.

Es lo temps qu'òm semena : lo blat, un brivet s'enlumina
Entre la man que se duèrb e lo neient de las regas ...
Tot lo cel en suspens es pas res qu'una raissa d'estelas
Que s'eternisa a contrast de nòstres còrs defalhents.

LA VESPA

Bufe un alen d'azur clar e l'odor de la tèrra se mèscla
A n'aquel gost de remembre qu'an los perfums de tardor;
E la vèspa qu'un rai de solelh, lo derrièr, a pintada,
Encara un còp se reviuda a sa morenta clartat.

Renat NELLI

TXIRRITA

Sagardoi infernalen iraganean, zure ikara, o txirrita,
Memoria baizik ez diren lore-izar-ihintzetan astuna da.
Baina, lizar lilluratuen gainean, ekiak beti uste du, zure hegaletan,
Hauts egiten dion zure kantuarekin inharrosten dela.

Goizeko txoriaren oihu gosetiegia, lotsatiegia, sekula asetzen ez den sapaz eta
mendeetako orlegitasunaz ihaurrikan diren arbola handien
apirilako inguramen hori: hainbatez nahiago diet hosto bedera amets duen zumarra
zaharra.

GATUA

Nere gatu gaixoa orain Sakonaren lazduran ehortzirik da!
Zeru izartsu pean, gauero, ondoratzen zitzaidan.
Uda ilunaren ixuria jarraitzen zuten haren urrezko begiek;
geroaren bideratzen ikusezinean baizik ez zuen sinesten.

TXAKURRA

Nere leihoan euri-amarraun bat, izar bat, dantzan ari zen...
Ur kexatuatarik altxatzen zen algara baino ez zen hautemaiten.
Eta gauaz, uholdeetaz, lurpetiar itxaropenez ametsetan nindagon.
Bere bizki suaren ondoan berotzen zen nere txakur bustia.

LA CIGALA

Dins lo passat dels vergièrs enfernals ton fremin, o cigala,
Pesa a de flors aiganhosas que son pas pus que remembre.
Mal sul fraisse esbleugit lo solelh crei totjorn, dins tas alas,
Véser sos raisses vibrar a ta cançon que l'encèndra.

Tròp alabre es lo crit de l'aucèl del maitin, tròp feron
Aquel decòr abrilenc ont los grands arbres rabejan
De seculara verdor e de saba jamai sadolada!
Melhor me platz l'olm antic dont cada fuèlha es un sòmi.

LO GAT

Mon paure gat sabelit dins l'orror del Prigond!... Se'n veniá
Cada ser, prep de ieu, se seire jos las estelas...
Sos uèlhs d'òr seguissián lo decors de l'estiu tenebrós;
Cresiá pas qu'a l'invisible caminament del Futur !

LO GOS

Sus ma vitra una aranha de pluèja, un estela, dançava ...
Ausissiá res que lo clam que fan las aigas rabentas.
E soscavi a la nuèit, al Deluvi, als espèrs sosterranhs ...
Mon gos banhat se calfava còsta son Doble de fòc.

Renat NELLI

AHUNTZAK

Ahuntzen erdian biluzirik, Daphnis, uhaitzaren bihurri eguzkitsuetarik jazarririk,
Flauta jotzen arra-hasten da.
Eta Chloeri, iduritzen zaio, argitasun eta misteriozko haren gorputz ederra miretsiz,
Musikak duela ber denboran, desbeztitzen eta biharamonaz janzten.

OILARRA

Aintza oilarra, goizean altxatzen dena, ametsetan urrezko su-mihi,
Hilezkorrei egunaren ate guzien irekitzeko,
Baina gauaz, infernua argistatzen duen bere abotsaren oihartzunak
Garraituko duen beste eguzkiaz ahanzkor direnentzat abesten du.

EMAKUMEAK ETA JANTZIAK

Maite dituzte liliak, txoriak, hunki daitezkeen koloreak;
Irriak urratzen eta negarrak gordetzen dituenak;
Eta inoxent-airez haiduru dauzkaten arropak, ohe ertzean,
Amodioaren uhin beldurtietarik atera dadin biluztasuna

GAUA ETA EGUNA

Bati, laket zaio desiraren disdirak gero gehiago biluz dezan;
Bestea, lotsati, logelaren zokorik ilunenean ezkutatzen da.
O nere urtaro dudakorra, Otso-emearen eta Ainesen artean erdibitua!
Maite dut amodioa eta haren gaua; maite dut amodioa eta haren garra.

LAS CABRAS

Entre salir, lo Dafnís, dels remols solelhoses del gaudre
Nus al mitan de sas cabras tornajogar del flaüt,
E Cloè sosca, agachant son bèl còs de mistèri e de lutz,
Qu'es la musica a l'encòp que lo denuda e que l'ondra.

LO POL

Lausi lo pol sorgissent de maitin, flama d'òr, dins los sòmis
Per alandar als vivents totas las pòrtas del jorn,
Mas que, de ser –lo resson de sa votz enlumina l'enfèrn–
Canta pels mòrts oblidoses l'autre solelh vencidor.

FEMNAS E RAUBAS

Aiman los flors; los aucèls, las colors que se pòdon tocar,
Çò que lo rire lacera e çò que neblan los plors;
E sas raubas, d'un aire innocent, esperants sus l'esponda
Que tornen nudas salir dels flòts feros de l'amor.

LA NUEIT E LO JORN

L'una, li platz que lo lum del desir totjorn mai la denude;
L'autra, crentosa s'amaga al pus escur de la cramba...
O mon incèrta sason despartida entre Anhès e la Loba!
Aimi l'amor e sa nuèit, aimi l'amor e sa flamba...

Renat NELLI

IZOTZA

Bide ozentsua eta landak ingura ditzatela gauak eta izotzak:
Zure eskua datxikat, laster dagigu –itzal fidelen gisa bata-besteari loturik–
Esperantzarik gabeko argitasuna duen gure etxerantz
Eta zure bihotzaren zimizta iluna ukatzen duen zorionerantz.

Venus irrifartsu dator, eta burua apal eta malin badoa.
Amodioa bozkarioan hasten da, tristuran bukatzeko.
Halaz ibaiek, itsas mugagabei beren eztitasuna nahastuz,
Haren uhina jastatu orduko, kiretsari gostu hartzen dute.

SUGEA

Baratzea huts dago: ur-jaurtigailuak udako uhar bat barreiatzen du.
Eurien gozotasunez blai dagoen landarexkaren pean,
Suge gaztea jazartzen da, eta, txiki bezain engainakor,
Ilusioaren eta Gaitzaren ortzadar ahularekin dantzatzen dabil.

HARRULIA

Ez ahal dut inoiz harri zuriegia altxatu? Pean,
Haren beltz mineralaren latzean hazturik,
Hila jotzen zuen harruli bat bazen, pozoinik lodienak ontarazten
Eta bere gauean lurreko gau guziak biltzen zituena.

LA TOR

Que la nuèit e la tòr agolopen les camps e l'estrada sonòra:
Tèni ta man e correm –junts coma d'ombras fidèlas–
Cap a l'ostal que sa cauda lusor sens esper nos i espèra,
E lo bonaür que refuda lo sorn esliuç de ton còr.

Venús arriba risenta e se'n torna cap clin e dolenta;
L'amor comença joiós per s'acabar en tristesa:
Atal, mesclant sa doçor a la mar infenida, los fluvis,
Tre que son onda an tastat, prenon son gost d'amarum.

LA VIPERA

L'òrt es desèrt : lo grifol espargís una raissa d'estiu.
Jos l'arbratèl que regula d'aquels delícis de pluèja,
Una jove vipera se quilha e, perfida e menuda,
Dança amb lo freule arc-de-seda de l'illusòri e del Mal.

L' ESCORPION

Ai levada benlèu una peira tròp blanca ; dejós,
Fossilisat dins l'òrror de sa negror minerala,
Fasiá lo mòrt, l'escorpion, madurant sos mai denses verins,
E concentrat dins sa nuèit, totas las nuèits terrenalas.

Renat NELLI

ADARBAKUNA

Adarbakun gozoa, ondi dakit infernuko abere bat baizik ez zarena.
Aingerurik uhargiena bezain garbi iduritzen zatzait alta.
Neskatxen usainak erretzen zaituen ber –hilaraz arte–
Garbitasuna zuretzat, garbienak likisten dituen da!

PAPAGAIA

Papagaia, txori ero sutsua, infernuak du bultzatzen
Gazteluen erretzera eta emazteen bihotzen kixkailtzera.
«Erna zaitezte, gaueko su baten antzera,
Argiak eta ilunak batzen dituen amodioaren sutea laster histen baita!»

BERIBIL HORIA

Belarren loditasunaren eromenik sakoneraino
Eraman dute neskak eta mutikoak beren mozkorra, erreka segituz.
Haien beribil horia, zain dagoen piztiaren gisa,
Etengabe bakarrik abestuz eta urtaroa miretsiz, bazterrean haiduru dago.

Hara buruila eta haren suspir ezia, ixiltasunaren ortzaizean beren zurrumurruez
horma ahula iruten duten marmutxak ixilduko dira.
Igaiten eta uzten gaituen uda garbi eta betetik zerura izar-saldoak iragaiten dira,
gauerditan, arbola hutsean.

L'UNICORN

Doç unicòrn, sabi plan que siás pas qu'una bèstia d'infèrn:
Pr'aquò me semblas tan blos com son los angels lindoses.
Jà que te crema –a te'n faire morir– la flairor de las filhas,
La puretat es per tu çò que corromp los mai purs!

LO PAPAGAI

Lo papagai, fòl aucèl de l'encèndi, es l'infèrn que l'adutz
Per abrandar los castèls, cremar lo còr de las dònas.
«Coitatx-vos! car la flamba d'amor es plan lèu amortida
Que, tal un fòc dins la nuèit, mescla la lutz a l'escur!»

L'AUTO JAUNA

Long del riu, lo gojat e la filha an seguit son margal
Dusca al deliri mai fosc de l'espessor vegetala...
E l'autò jauna, a l'embat, com un mostre pacient los espèra,
Cantant sens fins tota sola e remirant la sason.

Aquí setembre e son tendre respir: las bestiòlas que teisson
Son frèule mur de rumors a l'horizont del silenci
Van s'atudar : de l'estiu tèune e pur que s'enaire e nos daissa
A mièja-nuèit l'estelum passa sus l'arbre desèrt.

Renat NELLI

HUNTZA

Kantua beti haurzaroan, zure aire tristuraz hantua entzuten dudalarik,
Ihes nahi nuke, lehenago bezala, amodiozko eta itzalezko zure botzerantz.
Ordea bideak, garbi eta sakon huntzaren oihua hausten den
Desertu zurbailerantz, ezerrezerantz baizik ez derama.

ERLOIUA

Erlustriak ote du ilargiari abesten ala gaua uhuruka
Edo apoa bere urmael zitalaz negarrez?
Ez. ordea, erloiu egiptziar hilkorra da eta haren ttanttak erortzen direnak.
Aileza, berriz ere, nere biziak zeruaren izaria har.

O Sylphe ederra, aurkitu dut azkenean, zure txabola galdua;
Bizia hainbatez ilun eta bidea argi.
Lau haizeak, hilen mahainean jarririk, solasean ari ziren,
Leiho infinitotik, esperantzarik gabeko izar saldoekin.

Bouisseko Gaztelua, 1976

LA CABECA

Cançon totjorn en enfança: qu'ausisca ton aire dolent,
E voldriá fuger, tornar, vers ta votz d'ombra e d'amor!
Mas lo camin mena pas qu'al desèrt apallit ont lo crit
De la cabeca s'acaba prigond e blos, al neient.

LA CLEPSIDRA

Es la blanda que canta a la luna o la nuèit que ulula,
O lo grapaud que se planh dins son estanh verenós?
Cresi pus lèu: la clepsidra funèbra e sas gotas que cason...
Encara un còp que ma vida prenga mesura del cèl!

L'ai trapada a la fin, o bel Silf, ta casèla perduda!
Mai era sorna la vida mai lo camin era clar.
Los quatre vents, assietats a la taula dels mòrts, i charravan,
Per la fenèstra infenida, amb l'estelum sens espèr.

Castel de Boïssa

**Miquel
DECOR**

IRAGAN urtean erre mendiaren kaskoan, azkonarro baten habia bada, eta mahats molkoak ont ditezen zain nago, eta ikusiko duzu datozen mahats-biltzeen sasoinean bere zilotik jalgiko dela, Eumesko ibairantz jautsiko eta zarta-haina fresko hanturik den igali dilindakor beltzaren jatera jinen dela, eta duela bost urte aitag arra-landatu aihen gaztearen xirmindu oso luzeak ausarki kurutzatzen direla, eta ez dela ez belar tzarrik ez eta kardorik anaiek garbi detxikaten soroa ongi arrasa eta berdea dela, gatzarri irintsuan hegalaq torratzera datozela eperrumeak, baina azkonarroa ez duzu begistatuko egunaz gorderik eta gauaz ateratzen baita, mahastiko langileak joan ditezen. En Ratiereko pinuen gibelean eguzkia desagert dedin, freskurak malkar beherea balaka dezan haiduru dago, eta hor, hor baizik ez, angira bezain lekedatsu lerroen artetik lerratuko da, bere mutur bero eta hezea luzatuz, terret mahats mota zuriaren guneraino jautsiko da, muscat herroka segituko du, eta orduan, mutu egoiten baldin badakizu, lizararren enborrondoaren erroetan, haragizko ñiña duten begiak erakutsiko dizkizut eta betiko bozkario bihikatxoa hortzartean purruskatzen duen aldiro haren oihu basa adituko duzu.

A la cima del puèg que cramèt l'an passat i a un jaç amb un tais e qu'espèra tot l'an que los rasims vairesson e veiràs que per las vendémias que venon sortirà de son trauc devalarà cap a Rèc d'Eimes e vendrà manjar la frucha que penjòla negra confla fresca a ne'n petar mai que las bisas son longassas e crosan pro dins lo malhòl que lo paire tornèt plantar aquò fa cinc ans e que i a pas de blets nimai de caucidas que l'èrba i es plan rasa e verdeta que los frairòts lo tenon pròpre los perdigalons s'i venon fretar las alas dins la greseta farinosa mas lo tais el lo veiràs pas que s'amaga lo jorn e sortís la nuèit espèra que la còlha se'n foguèsse anada que lo solelh trescolèsse darrièr los pins d'En Ratièr que la frescura amanhaguèsse lo fond del penjant e aquí aquí solament limpiós coma una anguiala se glissarà per las tièras puntejant de son morre caud e umedós devalarà fins al carrat de terret blanc seguirà la règa de muscat e alara s'as sauput demorar muda entre las rasics d'un soc de fraisse te mostrarai sos uèlhs qu'an un viston de carn e ausiràs son crit ferun cada còp que quicha dins son cais un pichòt gran d'eterna gaug.

L'enregaire de cèl que seguís la montanha, coma lo det seguís l'esquina del malaut, a daissat l'autre jorn son baston desputant sus l'orle d'un laurat. Pastre de las estelas, pel calabrun se'n va, camina entre pins, ausinas, e bartasses, pòrta sa carga de malastres dins una saca ravalada.

D'aquí, d'alai semena de la man d'esquèrra çò que vòl pas butar al mièg de las estelas, puèi se'n torna romput, somiar jos un rocàs e la pluèja benlèu verdejarà son jac, pel bonur de sos uèlhs que veson pas son pas.

**Miquel
DECOR**

ASKA nazazu Jauna, munhoen urdin hortarik, baratze (bake) eta hiltegi
(sarraski) arteko sineskaitzen gauetarik, magaletan eta belar ilunezko hondoan
buztinezko ibarretan ixurtzen diren ihintz-negarretarik, orratzak harri
borobilez bete ibai lehortera erortzen zaizkion pinu kukotutik, helburura nahiz
dabilan basurdearen muturretik, bukatuko ez den egunaren beroan pausatzen
den ardi-saldotik, aska nazazu Jauna, pika eta bele tartean aihena mozten duen
mahastizainaren bakea emadazu.

LIBERA-ME Senhor d'aquel blu de morrèls, d'aquelas nuèits de bolgre de casals en masèls, de lagremas d'albièra que tomban sus las combas e de cròsses d'argèla dins un fons d'èrba fosca, d'un grand pin cussonat que las agulhas i tomban dins un rèc assecat comol de pèiras rondas, d'un morre de singlar que corrís son valum onte penjar son lum, d'un tropelàs de fedas quand s'acauma lo jorn que s'acabarà pas, libera-me Senhor, e balha-me la patz d'un podaire que poda entre agaça e corbàs.

Ives
ROQUETA

1

BETIDANIK

idaztea ofiziotzat dutenek
lekua seinalatua dute:
hilen erdian.

Lehen gure atalak altxatzen
genituen hilerrien hormetan.
Orain gure etxe hertsien barnean
usain eta zaratarik gabe
baizik ez dugu idazten
eta inor ez datorkigu erraitera:
«idatz iezadazu hau, eta hau, eta hau»

Ez ditu hargatik hilotzak eragozten
guri bisita sekretuen egitetik
are gutiago gure ulu-oinen hondotik
bizidunak sokorri deika aritzetik.

1

DEMPUEI totjorn,
los que son mestièr es d' escriure,
sa plaça es al mièg dels mòrts.

Un còp èra, aviam
nòstra taula quilhada
a la paret dels cementèris.
Uèi escrivèm dins d'ostalses barrats,
aseptisats e insonòrs, sens degús per nos dire:
–escriu aiçò, e aiçò, e aiçò ...

Empacha pas los defuntats
de nos far de vesitas discrètas,
nimai los vius de cridar al secors
entre nòstras patas de moscas.

Ives
ROQUETA

2

Idaztearen lekua, beraz,
eroetxearena ere zen eta poetak
maitaleak maitazalea bezala
hiltzaleak soinez-soin zeuzkan.
Ipuinak argitaratzen ziren
eta ogia erretzen genuen
hiltegietarik bi urratsetan.

Oraino ere hala dagigu,
usteltzen doazenen sorbaldetan bermatuz,
salerosleen oihuz
neska ohituen hasperenez
aitorpen xuxurlatuz
betilunez eta gaixtaginez inguraturik.

Garrantzi gutiko toki horietan
hersturatzen gara
Orduan baliteke –zoriona da–
zuzen erraitea.

Lo luòc de l'escritura, alara,
èra tanben lo de l'asili
e lo poèta i codoissava
l'assassin, coma l'amorosa l'amant.
Çai venián enquantar las novèlas
e lai cosián lo pan,
a dos passes del poiridièr.

Es ancara aital que fasèm :
d' esquina al carnièr,
entornats pels crits dels mercands,
los gemècs de las filhas rompudas,
las confidéncias a l'amagat
dels paucparla e dels paucvals.

D'aquí estant, òm se sentís
sens pus brica d'importància.
Om risca alara –es lo bonur–
de dire juste.

Alan ROCH

OCCITANIAKO erregea
bere gazteluan dago
eta dena eder dela oihukatzen du.

Occitaniako erregea
paradisuan dago
bere herria orotan bilatzen

Occitaniako erregea
infernuan dago
guzia negu baita negarrez.

Lo rei d'Occitania
es dins son castèl
e crida que tot es bèl!

Lo rei d'Occitania
es al paradís
e cèrca de pertot son país!

Lo rei d'Occitania
es en infèrn
e plora que tot es ivèrn !

Alan ROCH

DEUSENTZAT olerkia
Deus hitza
Deus ez du balio
Deus ez dagi
Deus ez egiteko
Deus ez erraiteko
Ez, deusik deus
Ez dut deuseren damurik
Deus ez gusta
Deus ez dut atzeman
Deuserentzat
Deus ez irabaztekorik
Deusentako txintxukatu
Dena ala deus ere ez
Deus ez
Dena deuserentzat
Deus ez hunki
Deus ez du nahi
Ez, deusik ez
Ez dut deuseren damurik
Agian deuseza
Ziprearena
Eta deus gehiagorik ez
Edo oraino deus
Deusaren eta gutiaren artean
Dena ala deus ere ez
Deus ez
Dena deuserentzat
Baina ez da deus
Deuseren deus

POÈMA de res:
Un mot de res
Fa pas res
Val pas res
Res a faire
Res a dire
Non, res de res
Regreti pas res
A res non còst
Ai res trapat
Per un res
res a ganhar
Cagantar per res
Tot o res
Lo tot per pas res
Tocar a res
Vòl pas res
Non, res de res
Regreti pas res
Benlèu lo nonres
D'un ciprès
E res mai
O res pus
Entre res e pas grand causa
Tot o res
Res del tot
Lo tot per pas res
Non i a pas res:
Res de res.

**Joan
LARZAC**

EGUTEGIA

URTARRILA

Borrobil sua, zakur etzana, borrobil
mahain jarria. Eta datorren urtea
jada iraganaz hazten da, denbora
borrobila plater zabalean kokatzen baita.

OTSAILA

Ate hori herts ezazu, surantz hurbil zaite.
Egurraren metatzeko zenbat denbora karrointzen,
zenbat lan ebatsi lau mukurretarik
eguzki hotzaren aizkoltatzeko? Ez ahal duzu deus ikasi?

MARTXOA

Hazinden jalgitzeko ez da aro! Doidoia
zakurraren kanporatzekoa, eta abar hiletan
neguan zilo bat egiten duzue, aizkora kolpeka
ate atzetik udaren jinarazten saiatzeko!

CALENDIER

GENIER

Redonds lo fuòc, lo chin jagut, redonda
la taula mesa; e l'an que ven
ja se noirís de l'an passat que ten
lo temps redond dins una sièta plonda.

FEBRIER

Tampa m'aquela pòrta, e sarra-te del fuòc.
Te gelas quant de temps a te faire la lenha,
quante trabalh per far'n solelh de quatre bròcas
raubadas al freg! Tot aquò non t'ensenha?

MARÇ

Es pas un temps a sortir lo tropèl! Tot escàs
a metre un chin defòra, e per las brancas mòrtas,
vosautres dins l'ivèrn fasètz un trauc, a còps de pigassa
per veire de l'estiu, lo far venir darrèr la pòrta.

**Joan
LARZAC**

APIRILA

Zure eskuetarik banu koroa ardietsi behar
ez litzateke erramuzkoa, aihen-zurizkoa baino,
ez baitut gerlan, baina bai, amodioan, bakegintzetan
zure ardien urrezko ilatzea irabazi.

MAIATZA

Haize hotzak berak orrialdeak itzulikatuko dituenean
zaldi berdinaren gainean airatzen diren bi maitaleen gisa
nere kantuari haren beteegitik bi botz bizki
emaiten dizkion zitar batek bozkariora deituko nau.

EKAINA

Orain ardi eta bildots adardunak bezala
datorren hilabeteen mendi horien kaskoak epaituko ditugu.
Baina hamabi hilabeteetarik hamabietan gu gaituzte
mozten, deizten, biltzen eta arrasatzen, gerla eta hamarren artean.

ABRIAL

Deguèssi de tas mans reçèbre una corona,
seriá pas de rampalm, mas de vidalba, coma es pas
a la guèrra, mas a l'amor, òbra de patz,
qu'ai conquistat la lana d'aur de tas fedonas.

MAI

Quora solets se viraràn los fuèlhs a un bufal
al gaug m'incitarà 'na citarra que dona
de son tròp plen doas voses a mon cantar, bessonas
coma dos nòvis se raubant sus lo meteis caval.

JUNH

Lo mes que ven serà l'esquina d'aquelas sèrras
que tondrem, coma ara son las fedas e los anhèls banuts.
Dels dotze meses dotze nosautres sèm tonduts
e molzeguts, segats e rastelats, entre dèimes e guèrras.

**Joan
LARZAC**

UZTAILA

Nola dailupera erorten den belar etzana eta lurrean dagon xoria espazioaren emendatzeko ezer bilakatzen diren, ba ahal dakizu zuk igerika zabilanak, hala denez egun zeruak eta lurrak uhinez betetzen dituen zure abotsarentzat, ibaiarena gorputzarentzat edo hain sartua, ereina, biderkatua herri osoa hitzemanik zaionez?

AGORRILA

Ogi bihika beti esperantzetan hiltzen da
eta ogia ez balitz ogi bihurtzeko egina
baina hazteko eta biderkatzeko? Zertaz pentsatzen duzu?
Ez badu denak jende-zentzurik, ez da zentzurik batere.

IRAILA

Laborariak, erran duzun bezalaxe, bere ildoak irekitzen du
eta ez da gibel-itzultzen. Ereilea ere, ereiteko atera da,
eta xoriak pikokatzeko. Ereilea ez da beti uzta-biltzalea... eta Jainkoa
haztea emaiten du.

JULHET

Coma lo fen jagut que tomba jos la dalha
e coma un còp pel sòl l'aucèl
se reduson a ren per far mai grand l'espandi,
es que sas, tu que nadas
s'aital n'es de ta votz, qu'emplena uòi
coma ton còs lo flume d'ondas tèrra e cèl,
o se dintrada e semenada, li es promés tot un país, multiplicada.

AGOST

Una grana de blat morís totjorn qu'es presa.
E se lo blat èra pas fach per far lo pan,
sonca per créisser e per multiplicar? –A de qué pensas?
Se i a pas'n sens uman a tot, a res de sens n'i a pas.

SETEMBRE

Lo lauraire exactament coma o as dich, tira sa rega
e se revira pas. Lo semenaire es sortit çò meteís
per semenar, e los aucèls per piussar. Lo que sega
es pas forçadament lo semenaire...e Dieu dona lo creís.

**Joan
LARZAC**

URRIA

Ez aipa odola, ez eta pairamena
non ez zaren zu apezka, baina brentsan zamalkatzen duen
eta gure bizitzen graspaz mozkortzen den Jainko maitekorra
orok ardoa egiten baitu eta mahats gordinak ere bere kalitza badu.

AZAROA

Urdaro honetan balio duen ezer ez utz: ez:
Balioaren ontzeko baizik ez zen edertasuna sortua ...
Mimen freskoa ogiaren edo arroltzeen zare txikiaren
lokarri baino ez da. Artegintza orain irautea da.

ABENDUA

Eguberriren haiduru nindagon. Jainkoak madarika nezala. Besta da, ez
jaiotzearena, apailatzen ari den heriotzearena baina.
Mirail horren sakonean dagon urdea sangreatua delarik
eta likits, urteko bihurgune handia da.

OCTOBRE

Es pas de sang que cal parlar, nimai de sacrifici
o alara siás pas lo preire, mas lo dieu amorós
que cauca al truèlh e que se banda al most
de nòstras vidas, que tot fa vin, emai lo verd, dins son calici.

NOVEMBRE

En aquel temps de pòrc, cal daissar ren sens servir, non :
Tot çò bèl èra pas que per l'utile amadurar...
Lo fresc abarinièr ara es ligams pel blat e panièiron
pels uòus e pels rasims. L'art ara es de durar.

DECEMBRE

Esperavi Nadal, me damne ! es una fèsta
non pas de naissement mas de mòrt, que s'apresta :
de l'an lo grand moment, quand lo pòrc que me rèsta
al fons d'aquel miralh, lo sagnan e qu'infesta.

**Marcéla
DELPASTRE**

POETA:

POETARI erran diote: lurreko gizaki guzientzat mintzatu behar duzu orain.
Bizi diren bihotz oroei zabaldu behar diezu bihotza.
Norentzat mintzo nintzen ni? Nere zainetan ez nuen, bada, odola bihotz txiki
batetik bestera ixurtzen senditzen?
Haizea hostoetan! Sapa arboletan! Mintzo diren guzien hitz da nerea.
Mintzo den guzia, bizi den guzia! Bizi nahi lukeen guzia, eta ibai baten
antzeria doazen iraganaren keak.
Zu, biharko jende. Zeru apurra baizik ikusgai duzun zure hormen atzean
hertsatu jendea.
Zuk, haragizko bihotz hori duzuno, haurrideari parrean so egonen
zatzaiolarik, nahiko duzularik zure burua mirail batetan ikusi,
negarrez daudenentzat negarrez aritzen dira nere malkoak, zure oinazeak
nihauren penak baino bortitzago jasan ditut,
hatsa galtzen zenuelarik oihukatu dut, zure egarriaz erre naiz, zure goseak
sabela hortzikatzen dit,
eta ez dudan amodioaz zure amodioa dut kantatzen, bizitza berriaren igaliak
besagainka datxizkatzularik.
Baina nik, bihotz bat, mihi bat eta hitz bat baino ez dut. Eta zuk zurea,
ordezkaezina.
Noizbait, bisean-bis begiratu banauzu, erranen duzu miraila faltsua dela eta
hitza eroa.

LO POETA

AN dich au poëta : Aura chau que parles per tot òme sus terra. Ton còr lo chau dubrir a tots los còrs vivents.

Per qui parlave-ieü? Dins mas venas sentiá-ieü pas lo sang passar que vai d'un còr vivent a l'autre?

Lo vent dins las fuelhas! La saba daus aubres! Ma paraula es paraula per tot çò que parla.

Tot çò que parla, tot çò que viu! Tot çò que voudriá viure, e lo fum dau passat que se'n vai coma un riu.

Tu, l'òme de deman. L'òme barrat darrier tos murs, que n'as pus un pauc de ciau a veire.

tu, tant qu'auràs queu còrs de charn, que te voudràs 'visar dins un miralh quand 'visaràs ton frair en fàcia.

mas gremas se puran per tot çò que pura, ai sufrít tas dolors pus priond que mas penas,

ai cridat quand perdiàs l'alén, ai bruslat de ta set, quo es ta fam que cura mon ventre,

e l'amor que n'ais pas, quo es ton amor que chante, quand tenes a plens braç los fruchs de la vita novela.

Mas ieü n'ai mas un còrs, n'ai mas 'na lenga e 'na paraula. E tu la tuá, que res remplaça.

E si per cas m'as 'visat en fàcia, diràs que lo miralh es faus, e la paraula fada.

Asturiar poesia berria

Hautaketa:
Gerardo Markuleta

Itzulpena:
Xuan Bello eta G. Markuleta

BI HITZ SARRERA GISA

«Utz ditzagun alde batera [...] asturiartasunaren eta bablearen inguruko kontuak. Utz ditzagun alde batera dialektoen ustezko berpiztea ‘barregarrikeria’ folklorikotzat jotzen dutenen iritziak [...] Kontua da badela nekazal kutsuko hizkuntza bat, non trinkoago, non zatikatuago –gaztelanian urtua alde askotan, agian–, bizirauteko eta bere burua defendatzeko eskubide osoa duena, Mendikatearen iparraldean kokatua dagoena, eta han zehar elkarri ulertzeko balio duena. Bablea beraren hiztunek izan dadin nahi dezatena izango da»

Hitz hauen bidez (gaztelaraz jatorrizkoan, dena esan behar bada) ekin zion María Josefa Canellada poeta adintsuak Idazle asturiarren I. Biltzarreari hasiera eman zion deiadarrari: «Idazle asturiarrei». Utz ditzagun albo batera, beraz, kontuok.

Gerra ostean, ‘ekandu-poesia’, folklorismoa, probintziakeria bide zen nagusi asturierazko ahalegin poetiko urrietan. Manuel Asur-en *Cancios y poemas pa un riscar* (1977) poema liburuan jarri ohi da asturierazko poesia modernoaren mugaria. ‘Hizkuntz-konziientzia berriaren» edo ‘Berpizkundearen’ belaunaldia hasten da hor lanean: Asur bera, Xuan Xosé Sánchez Vicente, Roberto González Quevedo, Pablo Ardisana. Hizkuntzaren biziraupenarekin oso lotutako garaia izanik, poesia militantea aurrenik, gizarte-poesia gero izango dira nagusi, ardura formal eta estilistikoak indarra hartzen duen heinean.

1985. urtea aipatzen du Berta Piñán-ek aurreko belaunaldiak zabalduko bidean arrasto berriak marraztera etorriko zen ‘bigarren promozio’ honen kaleratze-data modura. Zenbait aldizkari eta argitaletxe ttikiren babesean, hurrengo orrialdetan barrena beren kezka hitz garbiz xuxurlatu eta oihukatzen dituzten poeta gazte horiek jendarterako jauzia egiten dute.

Bost poeta ekarri ditugu *Hegats*era eta euskarara, baina aukera zabalagoa zen, esan beharrik ez da. Estatuan zaldun eta salgai dabilen poesi zurrumurru asper antzekoan, ahots frexko eta ozen gisa nabarmentzen dira poeton oihu-xuxurlak (galegozkoak, katalanezkoak, euskarazkoak bezalaxe, derradan bide nabar). Eta kitto.

Gerardo Markuleta

ANTONIO GARCÍA (Tuña, Tinéu 1960)
Estoíru, Tinéu, Tsibros de Frou, 1984
Los díes repetíos, Uviéu, Alvízoras Llibros, 1989

XUAN MARTIN (Tinéu, 1960)
Cartafueyu portugués, Lletres asturianas 8, 1987

BERTA PIÑAN (Cañu, Cangues d'Onís, 1963)
Al abellu les besties, Uviéu, Academia de la Llingua, 1986
Vida privada, Mieres, Casa Municipal de Cultura «Teodoro Cuesta», 1991

XUAN BELLO (Paniceiros, 1965)
Nel cuartu mariellu, Uviéu, Seminario de Llingua Asturiana, 1982
Llibru de les cenices, Uviéu, Alvízoras Llibros, 1988
Los nomes de la tierra, Mieres, Casa Municipal de Cultura «Teodoro Cuesta», 1991
Lluz de biblioteca (argitaratzear)

PABLO ANTON MARIN ESTRADA (Sama-Llangréu, 1966)
Blues del llaberintu, Uviéu, Academia de la Llingua, 1989
Les hores, Uviéu, Ambitu, 1990
Díes d'innocencia, Uviéu, Trabe, 1992
Un tiempu meyor (argitaratzear)

BIBLIOGRAFIA MINIMOA

BOLADO, Xosé: *Antoloxía poética del Resurdimientu* [Sarrera, poetikak eta antologia], Ateneo obrero de Gijón, Xixón 1989.

GARCIA MARTIN, José Luis: «Breve muestra de la Nueva Poesía Bable» in LOS CUADERNOS DEL NORTE, 45-46. zk. azaroa-abendua, Uviéu 1987.

GONZALEZ-QUEVEDO, Roberto: «La Nueva Poesía Asturiana» [Ponentzia, solasaldia, poetikak eta poemak], LOS CUADERNOS DEL NORTEren 3. monografikoa: 'El Estado de las poesías', Uviéu 1987.

LABRA, Ricardo (Koord.): *Muestra corregida y aumentada de la poesía en Asturias* [Gastelerazko eta asturierazko poesiak biltzen ditu; poetikak, antologiak eta bibliografía orokorra eta poetaz poeta], Servicio de publicaciones del Principado de Asturias, Uviéu 1989

PIÑAN, Berta: «La poesía asturiana» in *Lliteratura asturiana y futuru* (*Actes de la I Xunta d'escritores asturianos*), Oficina de política llingüística, Uviéu 1987.

RUIZ DE LA PEÑA, Alvaro: «Los 'diecisiete grandes' de la resurrección del Bable» in LEER 4. zk. apirila-maiatza, Madril 1986.

**Antonio
GARCÍA**

BIOGRAFIA

BERANDUTXO huen jada
eroldaren
bulegoan agertzeko,
 baina goizean,
hamarretarako, banizkian jaiotze
agiria eta helbidea.
Harlem-en huen.
Ez nindian harritu.
Izenak berak emana zidaan aditzera
Ruth beltza zela.

BIOGRAFIA

YÁ yera bien tarde
pa presentame na oficina
del rexistru,
 mas a la mañana,
a les diez, tenía la partida
de nacencia y la dirección.
Yera en Harlem.
Nun me sorprendéu.
El nome yá me diera a entender
que Ruth yera negra.

ANTONIO GARCÍA

**Antonio
GARCÍA**

GAUZAK ORO BI DITUN

ISILTASUNARI guregan labaintzera
uzten genionean, deus ere ez geninan.
Goiza hunan gurea,
udako eguzki eta argiari zabalik.
Ez zigunan ardura
bide ondoan esertzea
eta itxarotea beste gau bat, bere urrats geldoez,
gure bila etor zedin.
Esan dinat lehen ere, ezer ez geninan.
Ez presarik ez patxararik, ezta oroitzapenik ere.
Soil-soilik gintunan (biak batera eta elkarren ezezagun)
oraintxe dugun memoria
edota honako hitzok.

TOLES COSES SON DOS

DE la que'l silencio dexábemos
esbariar sobre nós mesmos nada teníemos.

La mañana yera nuesa
abierta al sol y a la lluz del branu.
Qué más nos daba
sentar na vera'l camín
y esperar que viniera otra nueche,
col so pasu tranquilu, a buscanos.
Ya lo dixe, nada teníemos.
Nin priesa, nin calma, nin siquiera alcordanza.

Namás yéremos (xuntos y extraños)
la memoria qu'agora tenemos
o estes palabres.

ANTONIO GARCÍA
Antoloxía Poética del Resurdimientu
Los días repetíos, 1989

**Antonio
GARCÍA**

1976KO URTARRILAREN 22A

*Oficio de suicidas, intentar retener
la huella de la luz en sílabas de sombra.*

J. L. PANERO

ARRAS bitxia, alperreko lana dela seguru jakinik
eusten dioan lanbide hau,
badakik-eta poema bat beti
beldurra dela, eta errebolber bat herioaren
jolaserako pronto, eta egitasmo andana bat
non ametsak eta urteak uzten dituan,
bizitzaren irrika osoa hitzetan
jarriz, hitzek emango bailiaten
ez daukaan hori: hatzetatik piskanaka isurtzen
eta egunen gainera erortzen den –eta bost axola–
segurantz hori.
Hau guztiaren berri emango bahu sikiera,
aspaldi hartan bezala, eta kafetegi bateko terrazan,
goiza, ahaztura eta hainbat jende gogoa beste nonbait
iragaiten diren bitartean, lasai asko
esertzen haizen konfidantza berberaz.

Memoria oharkabea husten digun
jolasa, behin eta
berriro egunen ilinti-poema uzten diguna.

22 DE XINERO DE 1976

*Oficio de suicidas, intentar retener
la huella de la luz en sílabas de sombra.*

J.L. PANERO

BIEN raru ye esti oficiu al que te garres
cola certeza del llabor inútil,
si sabes qu'un poema siempre ye
llerza, y un revólver aviáu pal xuegu
de la muerte, y una tonga proxectos
onde dexes los sueños y los años
poniendo nes palabres tol ardor
de la vida, comu si elles te dieren
lo que nun tienes: esa certidume
que poco a poco esguila de los didos
y cai sobre los díes sin qu'importe.
Si acaso dexarás constancia d'ello,
igual qu'otrora, y col mesmu enfotu
col que sientes tranquilu na terraza
d'un café mientres pasen escaecíos
la mañana, l'olvidu y otra xente.

Un xuegu qu'imperceptible nos vacia
l'alcordanza y nos dexa repetida-
mente'l poema-borrayu de los díes.

ANTONIO GARCÍA
Antoloxía Poética del Resurdimientu
Los díes repetíos, 1989

**Antonio
GARCÍA**

BELAUNALDIA

ZEHAZGABEAK dituk bizi garen
denbora-lekuok. Deus gutxi zekiagu
umetan ikasitakoaz gain:
bizitzaren eta amodioaren jolasak.
Herioaz ez baitziguten deus esan.
Dena duk ohizkoa eta beti-batekoa,
kafea eta liburuak, paper zuria
zeinean grinak eta silabak kontatzen baitituk.
Hirian barrena ibili, txirrina jo
besoak zabalik hire zain dagoela
badakian horren etxean; eta noizean behin
negar egin, maitasun ezinezkoaren
segurantzaz duanean
(anitz dituk plazer ematen diaten eskuak)
edo epeltasuna besteren ezpainetan bilatu
eta husturiko kaxoiak besterik aurkitzen ez duanean.
Bizimodua eratzen duten gauza horiek.
Heriorik ez. Hartaz, deus ez zekiagu.
Baina ez diatela iruzurrik egin: bizi izatea
gezur bat izan duk beti, trebezia
kontatzen ikasi duana. Begiraiok jende horri.
Hango eta hemengoentzat ere,
idazketa lan latza duk bizitza.

XENERACION

IMPRECISU ye'l tiempu y el llugar
onde vivimos. Poco más sabemos
que les coses qu'aprendimos de nenos:
el xuegu de la vida y del amor.
Que de la muerte nada nos dixeron.
Too ye cotidiano y repetío,
el café y los llibros, un papel blancu
onde cuentes la pasión y les sílabes.
Andar pela ciudá, picar al timbre
de quien tú sabes que t'espera'n casa
colos brazos abiertos; y llorar
de xemes en cuandu, de la que tienes
(son diverses les manes que te presten)
la certeza del amor imposible
o cuandu busques calor notros llabios
y namás atopes vacíos caxones.
Eses coses que formen la to vida.
La muerte, non. D'ésa nada sabemos.
Mas nun te dexes engañar: vivir
siempre foi una mentira qu'aprendes
a contar con xeitu. Mira esa xente.
Tamién la vida, pa éstos y p'aquéllos,
ye un duru exerciciu de redacción.

ANTONIO GARCÍA

**Xuan
MARTIN**

SIMONEN AURREKO DEFENTSA

O epaileok, nahiago nuke
istorio hau kontatu beharrik ez banu:
ez naiz ni amodioak kale eta enparantzetan
azaltzea gustoko duten horietakoa, duintasun bariko
emaztekiñoak, maitasun edo min bat hondoaren hondoan
gordetzeko gai ez diren
eta blaga hutsal batean gorpuzturik
usteltzen zaien horietakoa.

Hala ere, beharrezkoa da.
Bizitza edo patua –ondare hutsalak–
baino zerbait gehiago dut jokoan:
Atenaseko zeru urdina,
bertako kale zaratatsuak, hain maiteak,
bertako tenploen geometria zuria.
Etsairik etsaienari ere
ez nioke nik halako zigorrik jarriko:
zakur baten gisan, hiriaren
inguruan noreaezean ibiltzea, sekula sartu gabe.

Ez al diet, bada, beti, eskuzabal
eskaintzak egin jainkoei?
Huts egin al du sekula nire besoak
aberriaren aldeko borrokan? Ez al du akaso
arerioaren haserreak
nire bularraren horma jo?
Esan al dezake beste horrenbeste
nire aurka ari denak?
Begira nola larritzen den,
Corinto, Coronea aipatzen baditut.
Umil, nire erru bakarra
aitortuko dizuet, o epaileok:
amore eman nion maitasunaren balakuari
dagoeneko gaztetasuna
pasiorako aitzakia ez zaidalarik.

DEFENSA ÉNTE SIMON

Ouh, xueces, bien quixera
nun tener que vos contar esta historia:
nun soi de los que-ys presta
vociar los sous amores
polas cais ya las plazas, muyeracas
indignas, incapaces
d'estoxar no más fondo
un amor ou dolor que s'envilez
encarnáu en lluela parolería.

Sicasí, ía precisu.
Daqué más que la vida ou la fortuna
—bienes vanos— you xuego:
el cielo azul d'Atenas,
las suas buiciegas cais tan estimadas,
l'alba xeometría de los sous templos.
Nin al pior enemigu
—y daría you pena semeyante:
arredolar comu un can alrededor
de la ciudade, ya nunca entrar nella.

¿Dacuandu la mia ufierta
xenerosa you nun fixe a los dieuses?
¿El mieu brazu faltóu
a la defensa de la patria? ¿Cuándu
el furor enemigu nun topóu
el muru del mieu peitu?
¿Puede decir los mesmo'l que m'acusa?
Mirái el sou apuru se pronuncio
Corintu, Coronea.
Humildosu confieso
la única falta, ouh xueces:
rendime al afalagu del amor
cuandu la mocidade
Ya nun val de sida pa las pasiones.

**Xuan
MARTIN**

Morroi gaztetxo bat,
ilehoria, bizarrik gabea, begi belztuna,
nire Ganimedes izan nuen.
Inbidiarik ez duenik bada, kondena nazake.

Nire kontra ari denak badaki
haren xarmaren berri, haren atzetik ibili baitzen
luze, eta alperrik.
Kolpeka eta mehatxuka
nahi izan zuen nire etxetik apartatu.
Morroiak nahiago izan bazituen nire goxoak
gizatxar horren gogorkeria baino,
nork gaitzetsiko du haurraren gustua?
nork du nahiago zauria fereka baino?

Badakit, bai, zein barregarriak diren
nire maitemin-kexuok.
Diodan nire alde
ez nuela neuk auzi hau hasi.
Isilean pairatu nituen gizatxar honen
bidegabekeria guztiak. Etxe duin baten
intimitatea bortxatzera ere ausartu zen,
gure arrebak ikaratuz
emakume-lekura sarturik.

Istilurik ez izatearren
azkeneraino eutsi nion nire egoarriari,
bai eta munduko beste ezer baino maiteago
dudan hiri hau uzteraino ere.
Ihes egin nuen mutikoarekin Egeoko
izenik gabeko irla ttiki batera.
Arrantzale xume batzuekin
partitu genuen lur
antzua, haizeteek
kolpatua, urik gabekoa ia.

Bizitza gogorra eta
ederra zen leku hartan.

Un rapacín eslavu,
rubiu, ensin bociu, colos güeyos prietos,
mieu Ganimedes foi.
Quien nun m'envidie, puede condenáme.

El que m'acusa sabe
de los sous encantos, pos perseguiu
abondu tiempu, en vanu.
Con golpes ya amenazas
sacalu de mia casa pretendía.
Se las mias donas fonon preferidas
a la torpe violencia d'ese home,
¿quién-y reprochará'l sou gustu al nenu?
¿quién quier una ferida a una caricia?

Que ridículas queixas
de namoráu vos cuento bien lo sei.
En favor mieu vos digo
que nun fui you el qu'empezóu tal pleitu.
En silenciu xufrió cuantos vexames
quixu faceme ese home. La sagrada
intimidade d'una casa digna
chegóu violar, turbando a mias hermanas
cola sua presencia nel xinecéu.

Pa nun tener problemas
llevéi el mieu aguante hasta l'extremu
de desdeixar esta ciudade qu'amo
más qu'a nada nel mundu.
Coléi col rapaz a una pequena isla
sin nome del Exéu.
Con unos miserables pescadores
compartimos la tierra
escariada, qu'azoutan
fuertes vientos, ensin apenas augua.

Dura ya guapa yera
la vida'n tal llugar.

**Xuan
MARTIN**

Gure jolasekin hondartza gorien
isiltasun garbia
hautsi genuen. Ilargia, jakinminez,
zelatan ibili zitzaigun gau amaigabeetan,
leiho irekiaren
uztaian etzanda.

Honakoa ere pentsatu nuen orduan:
«Hire maitasuna non, hantxe hire aberria.
Zoriontsu izan behar duk hemen,
hire herriko azpijokoetatik urruti,
nerabe horail honen ondoan.»

Ilunpeak batzuetan
haren gorputza islatzen zuen,
biluzik, zeru eta itsasoaren
urre garbi-garbiaren kontrargira.
Hain lurralde magikoa
nire begietarako zen bakarrik,
soil-soilik nire besoetarako. Ez jainkoek
ezta gizakiek ere ezin kenduko zidaten.

Baina ni bezalako gizon batek
ez du nahikorik amodioaz: adiskideekin
hitzegiteko gogoa nuen hiriko
gauzen gainean, tragedia eta diskurtsoak entzun,
sofista eta filosofoen arrazoi
ilunak eztabaidatu.

Pozarren, ia negar egin nuen
berriro ere nire inguruan
Atenaseko xuxurla goxoa entzun nuenean.
Mutiko hura eskutik helduta
bertako kaleak zeharkatu nituen,
hala nola maiteminduak begiez edo ezpainez
zeharkatu ohi duen maite duenaren gorputza.

Rompimos colos xuegos
el silenci u sonoru
d'ardientes playas. Avida la lluna
vixilóunos en nutes infinitas,
adeitada nel marcu
de l'abierta ventana.
Cheguéi pensar daquela:
«Au tea'l tou amor, tará la tua patria.
Has ser feliz acó,
llonxe de la intriga de la tua tierra,
al empar d'este rubiu adolescente.»

El sullume a vegadas
recortaba'l sou cuerpu
nudu a la blume del ouru purísimu
del cielu ya del mar.
Tan máxicu país
namás pa los mieus güeyos existía,
namás pa los mieus brazos. Nin los dieuses
nin los homes poderían quitámelu.

Peru l'amor nun basta
a un home como you: necesitaba
falar colos amigos de las cousas
de la ciudade, oyer
traxedias ya discursos,
discutir las escuras
traxedias de sofistas ya filósofos.

Cuasi choréi de gozu
cuandu sentí de nuevu alrededor mieu
el duce ruxe-rux de la mia Atenas.
Llevando de la manu
aquel rapaz percorrí las suas cais
comu l'enamoraú
percorre colos güeyos ou los llabios
el cuerpu de quien ama.

**Xuan
MARTIN**

Esnatze gogorra izan zen
kale-kantoi zoritxarreko horretan
gizatxar hori nire zain izatea,
taju bereko beste zenbaitekin
izkutaturik... Baina hala ere
onik atera ginen erasotik,
errugabeziak beti izan baititu aldeko
hilezkorrak.

Hil egin nahi izan nuela dio
bere salaketan eta desterrua dela
nik merezi dudana.
Baina zuek, epaileok,
entzuna duzue egia.
Lekuko inpartzial zenbaitek
nire hitzaldi kaskar eta nahasi hau
egiaztatuko dute.

Zuengandik

ez dut bihozberatasunik espero,
justizia baizik.

Maitasun bik dute auzian
hizketan ari naizen honen arima:
aberriak eta nerabezaro
garbi eta erakargarrian diren mutikoek.

Baina Zeusek berak ere
haien xarmari men egin bazien, nork
aurpegiratuko dit niri? Lasaiago
geratzen naiz, dena jendaurrean
kontatu eta gero.
Lagunek zein etsaiek entzuna dute.

Duru recobrar foi
que'n siniestra caleya solitaria
m'esperara ese home,
emboscáu con outros de la sua mesma
traza... Peru llogramos
afuxir del ataque,
que siempre la inocencia
tuvo los inmortales al sou llau.

Que quixe asesinalu
diz na sua acusación ya que'l destierro
ia lo que you merezo.
Pero vosoutros, xueces,
yá oyísteis la verdade.
Testigos imparciales
confirmarán este discursu torpe
ya difusu.

Nun pido
de vós benevolencia,
pido namás xusticia.

Dous amores disputan
l'alma d'este home que agora vos fala:
la patria ya los mozos
d'acorvante ya fresca adolescencia.

Peru se el mesmu Zeus
rendíu a los sous encantos, ¿quién puede
reprochámelo? Quedo
muitu más tranquilu llueu de contar
públicamente todo.
Amigos ya enemigos yá lo oyenon.

XUAN MARTIN

**Berta
PIÑÁN**

HIRIA I

EURIA ari du. Asperrerraino higaturiko irudia.
Leihoaz bestalde euria ari du
eta hiria urundu egiten da nik begiratuz gero.
Orain nik ere ikasi dut nolako molde
ezarri ohi duen neguak bere aginpidea.

CIUDA I

LLUEVE. Imaxe masuñada hasta l'aburrimientu.
Detrás de la ventana llueve
y la ciudá apártase si acesmo.
Agora yo tamién sé qué manera tien l'hibienu
d'imponer el so dominiu.

**Berta
PIÑÁN**

GANBARA

ITZALIK ez du gaua iragaiten den
bitartean asmatu ohi dudan leku honek,
beraren bare gertu, izkutukoak itzalik ez du.
Hemen beti izango da pikuen sasoia,
orduko oldarra erne eta larruazal bustian,
adatsean su hartzen duena,
hala nola gorputz batek beste gorputz arrotz batean
bere ixil-gordea eskaintzen duen. Bai eta, agian,
ohitura urteen poderioz geroz traketsago hau ere, hitzak bilatzekoa
hemen, ametsak hazten diren ganbara ilun honetan,
barregarria, kisketaz itxia.

DESVAN

NUN tien solombres esti llugar qu'invento
entrín pasa la nueche,
la so quietú próxima, furtiva, nun tien solombres.
Equí será siempre la estación de los figos,
la so violencia qu'espalma y priende
na piel moyao, nes guedeyes,
talo un cuerpu ufre el so secretu
notru cuerpu estrañu. Y tamién, seique,
esta zuna más torpe colos años de buscar les palabres
nel desván escuru onde miedren los sueños,
ridículu y piesllu.

**Berta
PIÑÁN**

CAÑU, 1990EKO ABENDUAREN 31N

ORAIN badakin:

 bila henbilen hura
hemen zegonan hire zain. Ezagun zaizkinan
gauzak:

 etxe hau,
ibaiaren ahotsa leihoan. Norbait
eskilerapetik deika ari dena
izen bat hirea dena errepikatuz.
Galdu hunan hura. Oraindik
ez dakinana:

 arratsalde jakin bat
urte batzuk barru, hire buruari begiratu
eta ez dun jakingo nor ote den bertsook idazten dituen
ez eta zein nahikeria bitxia dela medio
gogoratzen ote zaizkinan orain.

CAÑU, 31 D'AVIENTU DE 1990

SÁBESLO agora:

 aquello que buscabas
equí taba esperándote. Les coses
que conoces:

 esta casa,
la voz del ríu na ventana. Dalquién
que llama del fondu la escalera
y repite un nome que ye el tuyu.
Aquello que perdiesti. Lo que tovía
nun sabes:

 esa tarde precisa
en pasando unos años y te mires
y nun sepas quién escribe estos versos
nin por qué estrañu caprichu
los remembres agora.

**Xuan
BELLO**

POETICA

HALAKOXEA nahi nuke nik poema:
ilunpe patxadatsuan den
etxearen antzera,
goizalde berrira
lehioak zabalik.

ARTE POETICA

ASINA quixera yo el poema:
como casa en duce penumbra,
les ventanes abertas
a la mañana nueva.

**Xuan
BELLO**

PANICEIROS

EZAGUNA dut lurralde bat non munduak honako izenak dituen:
Zarreu Grandiella Picu la Mouta Paniceiros

Mundu bat bideen zentzua galdu duena
Jerusalem hiria haur baten ahurrean eraikia

Mundu bat garaia argitsua liraina zena
Iturri eta lats eta ibai asmo

Han gizakumeak isilik daude eta etsipen da isiltasuna
Han izateaz ahaztu ginen Han etsi egin genuen

Lurralde bat non etxea jausten ari den hazitegia zubia erortzen ari
Errota eliza gizakumea ere abailtzen ari

Han begirada garbia apala zen
Lainoak ortzean lagatako ohe-hutsunea

Han non haurtzaroko oroitza usteldua besterik
geratzen ez zaigun Bakardade gurea

Gurearen utzikeria

PANICEIROS

CONOZO un país onde el mundu llámase
Zarréu Grandiella Picu la Mouta Paniceiros

Un mundu que perdéu l'aldu los caminos
Xerusalén llevantao na palma la mano d'un nenu

Un mundu que yera altu luminosu esbeltu
Naciente y fonte y vocación de ríu

Onde los homes callen y el silenciú ye renuncia
Onde escaecimos el ser Onde claudicamos

Un país onde la casa cai cai l'horru la ponte
El molín la ilesia l'home tamién cai

Onde la mirada yera pura cenciella
la xaceda que dexara la nube en cielu

Onde namás nos queda la memoria
corrompida de la infancia La nuesa soledá

L'abandonu de nueso

**Xuan
BELLO**

J.E. PACHECOREN BERTSO BATZUK GOGOAN

Ez dut aberri hau maite.

Maite izan nuen, bai,
eta badakizue zernolako minez
izkiriitzen ditudan gaur bertsook.

Orain besterik ez dut honakoa baizik:
zenbait kale eta bertan isilaren
beldur izatea,
galdutako hiri bat,
nire memoria bertan ehorzteko.

Zer besterik egin dezaket?

Nork nahi luke, bada, geratu
jende oro arrotza den lurralde batean?

REMEMBRANZA D'UNOS VERSOS DE J. E. PACHECO

NUN amo esta patria.
Améla,
y ya sabéis con cuánta dolor
escribo güei estos versos.

Agora más nada nun me queda equí
que delles cais per onde tarrecer
el silenci,
una ciudá perdida
onde enterrar la mio memoria.

¿Qué otra cosa pueo facer?

¿Quién va querer asitiar nun país
onde tola xente ye extranxero?

**Pablo Anton
MARIN
ESTRADA**

NIRE IZENAREN GAINENKO ALDAERAK

Hi,
Sintrako gardentasun urdinean
João Velho izan hintekeen hori.
Han aurrean, urrun eta lagun,
Dom Sebastião,
hire Jaun Errege, somatzen duk.

Hi,
urrutiko lurraldetan habil
eta Jean Vieilh duk izena.
Auverniako egun haiek, hain
tristeak, gogoratzen zaizkik
ibaiko jainkoaren ahotsa
–zabal eta bitxia–
lehen aldiz entzutean:
Missisipi.

Hi,
John Oldman,
Tortugan pirata:
Henry Morganek berak
joko dik tiroa.

Hi,
Soriako alde hartan
Juan el Viejo bide haizena:
kanpoan idiak goldaketan ari dituk
Sortzailearen udazkena.

Eta hi,
zein bitxia den
hire izena Xuan Bello izatea
eta hemen, Uvieun, egotea,
irudipen ilunak
asturiera garbian azaltzen.
Hire aberria beti
haruntzago datzala jakitea.
Hi ez hagoen lekuan.

VARIACIONES SOBRE EL MIO NOME

Tu,
que podíes ser João Velho
na claridá azul de Sintra.
Allá alantre, distante y amigu,
presientes a to señor El-Rei,
Dom Sebastião.

Tu,
que andes una tierra remota
y llámeste Jean Vieilh.
Remembres aquellos díes
tan tristes de l'Auvernia
mentes escuches per primer vez
—inmensa y rara—
la voz del dios del ríu:
Missisipi.

Tu,
Jonh Oldman,
bucaneru en Tortuga:
el mesmu Henry Morgan
ha disparar per ti.

Tu,
que dibes ser Juan el Viejo
allá nes tierras de Soria:
llabren afuera los bueis
la seronda del Faidor.

Y tu,
qué estraño,
llamate Xuan Bello
y tar equí, n'Uviéu,
pasando visiones escures
al asturiano claro.
Saber que to patria
siempre queda aende.
Allí onde tu nun tas.

**Pablo Anton
MARIN
ESTRADA**

SAN MEFISTO

ASPALDIAN ezpata etaugarra izan zen,
nire orpoaren oihartzun galduak.
Baina aspaldiko garai batean izan zen hura.
Gaur eguneko ibaian izendatzen nauten urok
ez dute isiltasunak irabazitako
gudu haren berririk. Dagoeneko inork ez du
gogoan eta bost axola.
Heriotzaren ordaineko
bizitzaren prezioa, bi itzalen arteko
tratua baino ez da: Gizakia jausi
eta Deabruak gustora jasotzen ditu
traizioaren txanponak.
Ezarian-ezarian garatzen da eternitatea eta Gizakiak
uste du zuzena dela
zoriontsu eta hilezko izatearren
ordaindutako zerga.

SAN MEFISTO

CUANTAYÁ foi la espada y el fueu,
los perdíos ecos del mio calcañar.
Pero aquello sucedió n'otru tiempu.
Les agües que me nomen en ríu del güei
nun saben res d'esa batalla ganada
pol silenciü. Naide s'alcuerda
d'ello y ye lo mesmo.
El preciu de la vida en truecu
de la muerte, ye comerciu únicamente
de dos sombras: l'Home que cai
y el Diablu que recueye gustosu
les monedes de la traición.
Anaína devién la eternidá y l'Home
piensa que ye xusta la tasa
pagada por ser feliz ya inmortal.

**Pablo Anton
MARIN
ESTRADA**

1983

GAZTE naiz. Jainkoek oraindik
ez dute nire izenaren berri ez eta
Ezerezaren aurkako nire norabidearen.
Sen hutsez bidaiatzen dut, udaberriko
eguzkiñoa besarkaturik; ibaiak
zuri, heze-sarria basoa.
Aingeru edo deabru batek ametsetarik
eskainitako lurralde batean,
ahots eta aurpegiak marrazten ditut,
lur bustia, hotza,
mendi zuriak eta txoriz
jositako gaztainondo zabala.
Atlasetan ez datorren
eta oroi-islarik ez duen lurralde honetako
biziak ere marrazten ditut, bihotz
gazteak zain samurretan odol eta grina
bonbatzen dituztenak, gose
eta goizalba kanta urduriak.
Baina gazteegi naiz oraindik gerlari izateko
eta urrun dira jainkoak. Isiltasunaren izenak
lurralde honetan kabi egitera etorri zirela
besterik ez dakit. Lats dela agian
lurralde garden-ospel hau. Jendetza mekanikoak dabilzan
hiri bat San Juan goizeko misterioari
oraindik ere otoitz egiten diona.
Eta Errege Arrotz baten mamua gurtzen duena.

1983

SOI xoven. Entá los dioses
nun conocen el mio nome nin
el sentíu del mio camín contra
la Nada. Viaxo al aldu, abrazáu
al solín de primavera; los ríos
candes, la biesca húmeda y mesta.
Nun país, que de los suaños
un ánxel o diablu m'ufiertara,
dibuxo les voces y los rostros,
la tierra moyarina, el fríu,
los montes albos y una fonda
castañal chiscada páxaros.
D'un país que nun figura n'atles
nin tien perfiles de recuerdu,
dibuxo tamién les vides, corales
mozos que bombien sangre y deséu
nes venes tiernes, cancios
nerviosos de fame y de riscar.
Mas soi inda mui nuevu pa ser guerreru
y lloñe tán los dioses. Sólo sé
que vinieron añerar nesti país
los nomes del silenciu. Que ye
acasu manancial, esti país frescu
y solombriegu. Una ciudá
de multitudés mecániques qu'inda
reza al misteriu del agua
en mañanes de San Xuan. Y reverencia
la bisarma d'un Rei estranxeru.

**Pablo Anton
MARIN
ESTRADA**

HIRU KUME JOSTAKETAN IKUSIRIK

GAUR goizean bi haur jostaketan ari ziren txakur batekin itsasondoan. Gustu ematen zuen hirurak elkarrekin borrokan ikusteak –anai-arreben antzera kasik– azken maria gorak hondartzaraino ekarritako makilatxo ziztrin baten kariaz. Urtarrileko aire fresko-aldakorra epeltzen zuen eguzki goiztiar hark saiheska laztantzen zituela, hiru kumeek errugabeziaren irudia bera ziruditen.

Zein akasgabea agertzen zen orduan mundua! Kumeek sortutako iskanbila izanagatik ere, edonork esan zezakeen denbora-lekuak une hartantxe zutela beren amaiera.

VIENDO ENREDAR A TRES CACHORROS

ESTA mañana dos niños enredaban con un perru
xunta'l mar. Prestaba velos engarrándose a los tres
—cásique como hermanos— por un mísero palu que truxere
hasta la playa la última marea. Cariciaos de raspion por
aquel sol madrugador, que serenaba l'aire frescu y cambiadizu de Xinero, los tres
cachorros abultaban la imaxe mesma de la inocencia.

¡Qué perfectu apaecía'l mundu entós! Al pesar del
xaréu que los cachorros armaben, cualquiera puidere tener dicho que l'espaciu y el
tiempu terminaben a esa hora.

**Pablo Anton
MARIN
ESTRADA**

TRAIZIO LARRIA

Ez dut nire jendea maite. Beren keinuetako zenbait ditut gustuko bakarrik, eta zenbait hitz. Gainontzekoari dagokionean, adiskide urriak eta maite ditzazun nahi duten gorputzak, berdin-berdin gertatu ohi dira hemen zein nonnahi.

ALTA TRAICION

NUN amo a la mio xente. Sólo dalgunos xestos d'ellos me presten y dalgunes palabras. Respetive a otras cosas, los escasos amigos y los cuerpos que quieren que los ames, danse equí igual quén cualquier otra parte.

Hegats 11

1994ko ekainean

Copy-Print-en inprimatu zen.

Argitalpena 600 alekoa da.